

SAILS MASTER GIDA

MUNDU DIGITALEAN ZURE SEME-ALABAREKIN NABIGATZEKO

GURASOENTZAKO BALIABIDEA



Safe & Autonomous Internet-based Learning Strategies

Akordio zenbakia:
2020-1-ES01-KA226-SCH-096060

<https://sails.deusto.es>

Erantzukizun deskargua: "Proiektu hau Europako Batzordearen laguntzarekin finantzatu da. Argitalpen honek, egileen iritziak baino ez ditu jasotzen, Batzordea ez da hemen jasotako informazioarekin egin daitekeen erabileraren erantzule egiten."



Co-funded by the
Erasmus+ Programme
of the European Union

AURKIBIDEA

<u>HASI AURRETIK</u>	5
<u>NORI DAGO ZUZENDUTA GIDA HAU?</u>	7
<u>SAILS PROIEKTUARI BURUZ</u>	11
<u>GURASOAK, BELAONTZIETAKO KAPITAIN: ARRISKUAK ARINTZEKO IKUSPEGIA</u>	15
<u>ZURE SEMEA EDO ALABA MUNDU DIGITALEAN</u>	19
<u>Tresnak Eta Hardware-a</u>	20
<u>Ikasteko Plataformak</u>	23
<u>Sare Sozialak</u>	24
<u>Digitalizazioa eta Oinarrizko Konpetentziak</u>	27
<u>Irakurketa Digitala</u>	28
<u>Idazketa</u>	28
<u>ARITMETIKA</u>	29
<u>KODETZEAK</u>	30
<u>JOKOAK ETA IKASKUNTZA</u>	32
<u>PENTSAMENDU KRITIKOA ETA KOMUNIKABIDEAK</u>	35
<u>BULLYINGA ETA ZIBERBULLYINGA</u>	37

ZER EGIN BERRIKUNTZAK DAUDENEAN

39

ESKOLAREN ETA GURASOEN ARTEKO HARREMAN DIGITALAK

41

Eskolaren eta Familiaren Arteko Harremanetarako

43

Plataformak

DBEO eta Haurren Eskubideekin Lotutako Beste Arazo

44

Batzuk

Erabakiak Modu Parte-Hartzailean Hartzeko Prozedura

45

Portafolio Elektronikoak

46

Gurasoak Irakasleei Prestakuntza Ematea

46

Zer Espero Dezakezu Hezkuntzako Profesionalengandik?

47

LEGEGINTZAKO AURREKARIAK

48

Europar Batasuna

49

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (DBEO)

49

NAZIOARTEKO ZUZENBIDEA ETA POLITIKA

Haurren Eskubideei Buruzko Nazio Batuen

50

Konbentzioa (“HENBK”)

50

Henbk-I Buruzko Ohar Orokorra

51

Haurren Aldeko Nazio Batuen Funtsaren (“UNICEF”)

52

Eztabaida-Dokumentua

LEGEGINTZA ESPARRU NAZIONALA: ESPAINIA

53

GURASOENTZAKO KANPO BALIABIDEAK

56

1. ERANSKINA: GURASOENTZAKO

60

AUTOEBALUAZIO-TRESNA, ARO DIGITALEAN

GURASO MODUAN DITUZTEN PRAKTIKEI BURUZ

1. Zatia: Aztertu Zure Hazkuntza Digitala: Ebaluatu Zure

61

Hazkuntza-Estiloa Eta -Jarrera

2. Zatia - Gurasoen Eskubideak Mundu Digitalean - Ebaluatu

71

Zure Ezagutzak

HASI AURRETIK



Pentsatu azken 24 orduetan, eta erantzun:

1. Zer gailu digital erabili dituzu?
2. Zer plataforma digital bisitatu dituzu?
3. Euskarri digitala duten zer zerbitzu erabili dituzu?

Posible bada, galdetu gauza bera egiten duen bikotekideari, lagunari edo senitartekoren bati, eta erkatu zerrendak.

Zerrenda eskuan duzula, marratu ziurrenik ume batek erabiltzen ez dituenak. Zure semea edo alaba, beharbada, gaztegia izango da haietako batzuk erabiltzeko; hori dela eta, saiatu, oro har, adin guztietako umeak aintzat hartzen.

Gainerako zerrenda nahiko luzea da, ezta? Oso eroso zaude haietako batzuk erabiltzen, eta ez zaude ziur beste batzuekin.

Baliabide hau irakurtzean, gogoratu:


- zure seme-alabek zu behatu eta zure erredua ikusiko dute; beraz, webean dabilenean, haren eredu izango zara
- ez duzu zertan denetarik jakin, eta ongi dago laguntza eskatzea.

**NORI DAGO ZUZENDUTA
GIDA HAU?**



Oraintsu izan den ikastetxeen itxieraren ondorioz, ikasle gehienek teknologia erabili dute ikasteko, lagunekin harremanetan egoteko, jolasteko eta bestelako jardueretarako. Ikastetxeak, gizarte-ikaskuntzako leku diren aldetik, ezin dira teknologia digitalarekin ordezkatu eta ez dira ordezkatu behar, gainera, baina itxialdiaren emaitzetako bat da kontuan hartu eta estrategikoki heldu beharreko aldaketa iraunkor batzuk daudela.

Gero eta familia gehiagok erabiltzen dituzte tresna digitalak, haietako askok ikastetxeak itxi dituztelako; argi dago gurasoentzat eskuragarri dauden baliabideen bidez, askotan, ez zaiela haien kezkei eta galderei erantzuten (Gida honetan gurasoak aipatzen ditugunean, guraso, tutore eta adingabeen hazkuntzan interesa duten beste heldu arduradun batzuei egiten diegu erreferentzia). Oraintsu argitaratu den ikerketa batek (Livingstone, S. 2020) erakusten du gurasoek zenbait estrategia erabiltzen dituztela eta haurtzaroaren zenbait ikuspegi dituztela tresna digitalen erabileraren inguruan. Gure ikuspegiak gertakari hori islatzen du, eta hazkuntzaren jardunbide egoki guztiak bultzatuko ditu, ikuspegi bakarria iradokitzeke ahaleginik egin gabe; familiei haien bidea aurkitzen lagundu nahi diegu.



COVID-19aren ondorioz eskolak itxi izanak ere honako hau ekarri zuen: eskolek eta familiek elkarrekin lan egin behar izan zuten, gurasoak eta irakasleak elkarrekin ikasten errealitate digitalen bidez nabigatzen. Nahiz eta, esperientzien ondorioz, irakasle eta guraso gehienek ikaskuntzarako teknologia digitalen erabileraren ahalmena eta onurak antzeman zituzten, zenbait arlotan gurasoek laguntza behar dute eta haietan, askotan, irakasleekin negoziatu behar dute.

Konfiantza gehiegi izatea oso arazotsua da, gehiegi babesteko ikuspegiak beste, eta baliabide honek bi alderdiei heldu nahi die. IPAk 2020ko martxotik eginiko ikerketak argi erakusten du gurasoek nahi dutela teknologia digitala eskolatzearen eta hezkuntzaren alderdi integral bilaka dadin, zentzu zabalagoan, baina online eta offline jardueren artean oreka osasungarria aurkitzeko beharra ere ikusten dute, teknologia digitalak hezkuntza-jarduera tradizionaletan duen eginkizuna aurkitzekoa, pantailaren denbora pasiboa eta aktiboa negoziatzekoa eta datuen pribatutasuna eta babesa zaintzekoa.

Herrialde askotan, dagoeneko, teknologia digitalak erabiltzen dira etxearen eta eskolen arteko harremanetarako, ikaskuntza bultzatzeko, jolasteko eta sare sozialak sortzeko. Haiek erabiltzeko lehen urteetan, bai eskolako profesionalei bai gurasoei immigrante digital esaten zitzaie; alegia, bizitzaren zati gehiena mota horretako tresnarik gabe bizi izan zuten pertsonak. Hark esan nahi zuen bi taldeak zeudela ikasteko prozesuan murgilduta eta, zoritxarrez, gehienetan, bananduta. Hala ere, natibo digitalak, alegia, aro digitalean jaio direnak, guraso bilakatzen ari dira. Irakasleria zaharkituta dago European, eta hura da errealitatea, eta, orain, irakasleek gurasoekin eremu horretan lankidetzan jarduteko sasoia da, irakasleen eta eskola-liderren ikaskuntza bultzatzen duten natibo digitalekin. Hala ere, Gida honen buruak SAILS, Parents International proiektuan eginiko ikerketak erakusten du katalogatu egin behar direla teknologia digitala umeen eta familien bizitzan eta etxearen eta eskolaren arteko harremanetan zer modutan dagoen presente, haiekin tratatzeko ikuspegi kontzientea izateko.

Teknologia digitala haien seme-alaben bizitzan, orientazio egokia baliatuta, elementu ona izan daitekeela uste duten gurasoei zuzentzen zaie Gida hau, eta ez seme-alabek gailu digitalak erabil ditzaten (haiek aurrean daudela edo haien baimenarekin) eragozteko edozer egingo luketenei. Gure seme-alabek ur digitaletatik ibiltzen ikas dezaten nahi dugu, nahiz eta itsaso hori batzuetan aurretik sumatu ezin den eta gogorra izan, eta ez portuan atrakatuta gera daitezten.

Gida hau berriaz diseinatu da eskola-adineko seme-alabak dituzten gurasoei laguntzeko. Nahiz eta gai batzuk tarte horren barruko adin-talde guztientzat egokiak ez izan, Gidaren asmoa da 6 eta 18 urte bitarteko umeen gurasoei laguntza eman ahal izatea. Kapitulu etako batzuk interesgarriagoak dira seme-alaba nagusiak badituzu, baina, txiki hauek nerabe egingo direnez eta, laster, helduaro inguruko adinera iritsiko direnez, baliteke seme-alaba nagusiak dituzten gurasoek sarrien aurrez aurre izaten dituzten gaiei buruz ere irakurtzea.

Proposatutako metodoak legeriarekin lotzeko orduan, nagusiki nazioarteko itunetan eta gomendio politikoetan oinarritu gara, baina proiektuaren herrialdeetan (Grezia, Hungaria, Herbehereak eta Espainia) bizi diren gurasoek legegintza-esparru nazionaletan ere badute orientabidea.



SAILS

PROIEKTUARI BURUZ

Munduak mende honetan egun arte bizi izan duen krisi handienaren ondorioz 2020an eta 2021ean sartutako murrizketek erabat aldatu dute harremanetan jarduteko dugun modua. Aurrez aurreko elkarreragina minimora murriztu da, halaber, eta gero eta ohikoagoa da pantaila baten bidez komunikatzea. Gauza bera gertatu zaie milioika ikasleri, irakasleri eta familiari; ikusi dute, egun batetik bestera, aurrez aurreko hezkuntza utzi eta online eskoletan murgildu behar izan dutela.

Ezusteko eta planifikatu gabeko aldaketa horrek hainbat arazo ekarri ditu hezkuntzara:

1

Ikasle batzuek haien ikasketa-taldea eta tutoreak galdu zituzten, konexio-arazoengatik, gailu egokirik eta nahikorik ez zeukatelako edo online eskolen erritmoari jarraitzeko gaitasun teknologikorik ez zutelako.

2

Irakasle batzuek aurrez aurreko dinamika utzi eta, egun gutxitan, bideokonferentzia-areto handietara egokitu behar izan zuten, kontuan hartuta areto horiek urruneko eskolen jokabide- eta komunikazio-kodeak ezagutzen ez dituen jendez josita zeudela.


3

Gainezka dauden familiak, haien laneko eta etxeko planak azpikoz gora jarri zizkien egoera batengatik, eta zailtasun handiak izan zituztenak, funtsean irakasleak ordezkatu eta haien seme-alaben lineako ikaskuntza bultzatzeko eta bideratzeko.

4

Ikastetxeetako zuzendariak presio handia izan zuten ikastetxe-mailan erabakiak hartu behar izan zituztelako, pandemiari aurre egiteko, eta, kasu askotan, ez dituzte kasu horietan hezkuntza-jardunbide egokienak ezagutzen, eta itsuka doaz.

Nahiz eta, gure ustez, lineako komunikazioak ez duen aurrez aurreko hezkuntza ordezkatu behar eta aurrez aurreko eskolatzea posible izateko ahalegin bizia egin behar den eta, bitartean, gailu digitalek eskuragarri egoten jarraitu behar duten, kasu batzuetan erabilitako baliabide osagarri gisa, itsaso asaldatu honetan, jarraibide argiak eman nahi ditugu, marinelek belak hedatzeko edo tolesteko, behar denean. Proiektu honen helburua da ikasle, irakasle, ikastetxeko arduradun eta familiei tresnak ematea, COVID-19ak ikasteko prozesuetan, komunikazioan eta eskola-elkartearen sozializazioan haurtzaro digitalaren esparruan azaleratu dituen gatazken aurrean erabakiak hartzeko.



Proiektu honetan proposatutako metodologiaren xedea ez da, aurreko saiakera batzuetan bezala, ikasleak sareko portaera egokiaren, haien autonomiaren kudeaketaren eta harreman sozial egoki eta seguruen aurrean kontzientziatzea; guztiz bestelakoa da. Hala bada, “Instalab” izeneko irudimenezko sare sozial bat garatuko dugu; hartan, sinesgarritasunez azalduko ditugu testuinguru horretan egon daitezkeen egoera arriskutsuak. Sarea *sandbox* sozial gisa erabiliko dugu; hartan, zenbait profil automatizatuk (*bot* sozialak) portaera desegokia izango dute eta ikasleek sortutako irudimenezko profilekin jardungo dute elkarreraginean. *Bot* sozial horiekin elkarreraginean jardutean, ikasleek ulertu ahalko dute zer portaera ez diren egokiak edo seguruak, modu praktikoan.



Nahiz eta irudimenezko sare soziala irakasleek eta familiek digitalki alfabetizatzeke erabil dezaketen, gure ustez, lan-material bereziak garatu behar dira kolektibo horientzat. Irakasleen kasuan, oso baliagarria izan daiteke online plataformek (SAILS gida, irakasleentzat) eskaintzen dituzten aukera metodologiko berri guztiak batzen dituen gida bat. Gainera, gure ustez, ikaskuntzarako online testuinguruetan izaten diren ohiko arazoak aztertzeke eta konpontzeke (zibererasoa, bideokonferentzietan errespetuari eusteko zailtasunak, sareko anonimatuaren abusua, plagioa eta arazoak konpontzeke app-ak, etab.) behar beste gako izan behar dituzte.

Familiak ere orientazio argia behar dute egoera berri horretan. Beharbada, digitalki alfabetizatuta ez egotearen, gaitasun digitalik ez izatearen edo beste trebetasun bigun batzuk ez izatearen ondorioz, familiarteko batzuk bizikide dituzten ikasleei laguntzeko edo eskolatzearen inguruan egokiro komunikatzeko gaitasunik gabe geratu dira –kontuan hartuta beste modu batera irakasle gehienekin batera eskolatzearan lagundu ahalko luketela–. Hori dela eta, proiektu honen helburua da familiei gida praktikoa ematea (SAILS Gurasoentzako Baliabide Segurua), hizkuntza ulergarri batean azalduko duena testuinguru birtual batean behar diren gauza gehienak nola egin –ikaskuntza birtuala ere har dezake barne– eta zer dakarren tresna, sare sozial edo plataforma bakoitza erabiltzeak.



Azkenik, eskolek, oro har, estrategiak abiarazi behar dituzte, ahalegin guztia koordinatu eta Covid ondoko sasoiaren hezkuntza bide egokirik bideratzeko. Helburu horrekin, SAILSek baliabide egokigarria eta malgua emango du eskolentzat; hartan, baliabide digitalen erabilera seguruaren eta egokiaren integrazioa estrategia gisa zehaztuko da, eta estrategia horretan eragile guztiek parte hartuko dute (SAILS Eskola Zuzendarientzako Baliabide Segurua).

Azken batean, SAILS proiektuaren helburua da nabigazio-gutun izatea Internetek hezkuntza-testuinguruan eskaintzen dizkigun aukeren ozeano zabal honetan, batik bat, aurretik zeuden ekaitzak eta COVID-19ak ekarri dituen berriak saihesteko.

Proiektu hau aurrera eramateko sortu den partzuergo transnazionala haren arrakasta bermatzeko gakoa da. Proiektuen koordinazioaren eta Deustuko Unibertsitateko taldea jokoan garapenean eta funtsezko gaitasunen garapenean egiten ari den ikerketaren inguruko esperientzia funtsezko pieza izango da SAILSen arrakasta bermatzeko. Gainera, zenbait entitatek haien lanetan eskoletako liderrekin duten esperientziari esker, aldaketak eta berrikuntzak eskola-mailan ezarriko dira eta gizartearen hesiak gaindituko dituzte. Gainera, IPAREN eta PantallasAmigasen esperientziak eta haiek zenbait familia-sarerekin eta beste eragile batzuekin duten konexioak aukera emango die eragina izateko, eskola-inguruneetan ez ezik, maila handiago batean ere.

**GURASOAK,
BELAONTZIETAKO
KAPITAIN: ARRISKUAK
ARINTZEKO IKUSPEGIA**

SAILS partzuergoak erabaki du lineako segurtasunerako arriskuak arintzeko ikuspegia aplikatzea. Kapitulu honetan, horrekin zer ulertzen den eta zergatik den garrantzitsua azaltzen da. Alde batetik, umeen eskubideetarako kontu garrantzitsua da; bestetik, arriskua eta kaltea aurrez aurre izango dituzte, baina, arriskuak prebenitzeko ikuspegia badago, posible da ez gertatzea. Gurasoek, seme-alaben eskubideen zaintzaile nagusi gisa, hura guraso-eginkizuntzat jo behar dute.

Has gaitezen umeen eskubideen erronkarekin. Umeen eskubideetan nolabaiteko hierarkia dago, zalantzarik gabe: bizitzarako edozein arrisku prebenitzeko ahal den guztia egin behar dugu. Hala ere, istripuak eta gorabeherak izaten dira. Hala ere, umeei zenbait trebetasun erakusten zaizkie; esaterako, auto batek harrapa ditzala saihestea, eta aukera ematen zaie, prest daudenean, egunero etxetik irteteko. Komunikabideetan lineako jardueren ondorioz kalteak –batik bat mentalak– jasaten dituzten umeei buruzko pasartez beterik dago. Askoren iritziz, erantzuna da galaraztea umeak Internetera konektatzea (haien aurrean) edo linean zenbait tresna erabiltzea, hala nola sare sozialak. Baina, hura da ikuspegi zuzena? Gure erantzuna ezetz da. Errepidean bezala, gure seme-alabei erakutsi behar diegu arrisku eta kalteak ezagutzen eta haiei aurre egiten linean eta, hala, beste oinarrizko eskubide bat bermatzen hasi: hezkuntzarako eskubidea. Era berean, familia- eta eskola-ingurune egokia bermatu behar dugu, umeak hartan seguru senti daitezen heldu bati aholku bat eskatzeko orduan (nagusiki gurasoei), deseroso, triste edo arriskuan sentitzen badira eta, hala, bermatu maitasunezko ingurune batean hazteko oinarrizko eskubidea.

Ikerketak egiaztatu duenez, gaur egungo umeentzat, linean eta lineatik kanpo egotea continuum bat da, ez bizitzaren bi eremu bereizi. Lineako tresnek eta, bereziki, baliabide sozialek, biltzeko, bizitza soziala antolatzeko, iritziak eman eta eztabaidatzeko, aukerak zabaltzeko eta inguratzen dituen munduaz ikasteko plataforma ematen diete. Hori dela eta, haurren eskubideak defendatzeko erakundeek nabarmendu dute zein garrantzitsua den lineako sarbidea; izan ere, umeen oinarrizko eskubide batzuk bermatzen ditu, hala nola adierazpen-askatasunerako eskubidea, bilketa baketsurako eskubidea eta, berriz ere, hezkuntzarako eskubidea. Legeria, familia edo eskola sarbidea eragozten saiatzen direnean, eskubide horiek guztiak murriztzakete, baina haien ekintzak ez dira azken batean justifikatu kaltea prebenitzeko motiboagatik. Garrantzitsua da aipatzea helduek postontzi elektronikoetara, sare sozialen kontuetara eta bestelako lineako espazio pertsonaletara sarbidea izateak eta gurasoen aldetiko kontrol-tresna gehienek ere pribatutasunerako oinarrizko eskubidea urra ditzaketela.

Umeen eskubideen oinarrizko printzipioa da oso lotuta daudela haien eskumenen bilakaerara. Azken 20-30 urteotan, umeek, European –zati handi batean, Estatu Batuetako eraginaren ondorioz–, haien eskubideak baliatzeko gero eta gaitasun gutxiago dutela ulertu da. Autoak askoz ere azkarragoak dira orain, askoz ere gehiago daude, eta, hala ere, jendeak erabaki du, seme-alabak etxean itxita utzi beharrean, kalea segurtasunez gurutzatzen irakastea. Lehenengo, elkarrekin gurutzatzen dute, eskutik oratuta eta semearentzat edo alabarentzat eredu izanik. Ondoren, umeari eskatzen diogu esateko noiz gurutza dezakeen bidea, ingurura begiratu edo semaforoari begiratu ondoren. Eta, prest dagoenean, bakarrik joaten uzten dugu, guztia irakatsi diogula jakinik. Modu berean, lineako lehen esperientziak batera bizi behar dira, eta heldu garrantzitsuek (bai gurasoak bai irakasleak) eredu izan behar dute seme-alabentzat. Aldi berean, garrantzitsua da umeari edozer gauza partekatze aukera emango dioten ingurune eta jardunbide batzuk sortzea, baita bihurria, lotsagabea edo zuzenean okerra izatea ere, zigorraren beldur izan gabe.

Afalorduan mahaiaren inguruan izaten diren elkarrizketa libreak onenak dira. Hala, linean edo lineatik kanpo ezer txarrik gertatzen zaien jakingo duzu, eta konfiantza sortuko duzu, haren eskubideak murriztu gabe.


Bela-irakasle bikaina izateko, eraiki konfiantza-harremana seme-alabekin, beti joan daitezzen zuregana haien arazoak kontatzera; sustatu elkarrizketa irekiak haien intereseko edozein gairen inguruan, eta izan zaitez eredu.

UMEEK MUNDU DIGITALEAN DUTEN BIZIPENARI BURUZKO IKERKETAK

Gida hau bildu aurreko hiletan, zenbait ikerlan argitaratu ziren eta, haien bidez, argiro egiaztatzen da SAILSen arriskuak arintzeko aplikatutako ikuspegia. Haietan azpimarratzen da linean segurtasunez ibiltzen ikasteko modu bakarra benetan hala egitea dela eta, umeei tresna digitalak eta baliabide sozialak zenbat eta gehiago erabili, orduan eta seguruago eta gogorrago bilakatzen direla. Argi dago, era berean, ohiko erabiltzaileek laguntza noiz eta nori eskatu badakitela, eta haiek inguratzen dituzten helduak, bereziki irakasleak, beti ez daudela eginkizun hori betetzeko prestatuta.

Ziurrenik, horren inguruko dokumenturik garrantzitsuenak Sonia Livingstone eta bere kideena da; Sonia Livingstone jardunbide digitalen ikuspegi orekatuaren eta umeen eskubide guztiak –ez soilik babeserako eskubidea– bermatzearen defendatzaile irmoenetako bat da. Proben berrikuspen sistemiko bat da, eta helburu du gazteen ongizatearen –eduki edo gertakari deseroso edo txarrekin zerikusia duena– eta haien erresilientziaren eta alfabetizazio mediatikoaren arteko lotura ezartzea. Gero eta gazte gutxiagok diote haien ongizatea murriztu egiten dela topaketa-mota horiengatik, eta badirudi lotura oso sendoa dagoela haiek mota horretako gertakarien aurrean duten erresilientziaren eta ongizatearen artean. Hala ere, erresilientzia garatzeko, benetan egoera zailei egin behar zaie aurre eta alfabetizazio mediatikoaren mailak areagotu behar dira. Hala, bada, badirudi argi dagoela familiak, lagunek eta konfiantzazko inguruko helduek behar bezala lagunduta, gazteek, epe luzera, arriskuaren eta egoera deserosoen eraginpean jartzean onurak ateratzen dituztela. Gurasoei eta hezitzaile profesionali honako eginkizun honi erantzuten laguntzea dugu xede: laguntza egokia emateko gai izatea, erresilientzia modu konplexuan areagotzea eta haien alfabetizazio mediatikoa bultzatzea.

Kathy Hirsch-Pasek-ek eta haren kideek eginiko beste ikerketa batek gurasoengana SAILSen talde hartzaile nagusi gisa zuzentzeak nolako garrantzia duen nabarmentzen du. Haien ikerketak ume txikiak, haien jardunbide digitalak (bereziki, bideoa ikustea) eta haiekin dituzten beste trebetasun eta gaitasunen inguruan hitza duten gurasoek daukaten eginkizuna izan zituzten erdigune. Haien ondorioek ere honako hau nabarmendu zuten: oso garrantzitsua da gurasoek seme-alaben jardura digitalen inguruko jakin-mina izatea eta elkarrizketak izatea.




Ofcom-ek Erresuma Batuan eginiko ikerketak erakusten du 13 urtetik beherako ume gehienak, dagoeneko, baliabide sozialen plataforma batean daudela gutxienez erregistratuta. 5 eta 7 urte bitarteko gurasoen heren batek dio haien semeak edo alabak profil bat duela; zifra hori areagotu egiten da % 60ra, 8 eta 11 urte bitarteko umeetan. Ez dago zuzenean umeengandik jasotako daturik; beraz, baliteke ehuneko horiek handiagoak izatea, bereziki, 8 eta 13 urte bitarteko taldean. Errealitate horri aurre egin behar diogu, eta horrek esan nahi du ume txikiaren gurasoek eta irakasleek gaitasun egokiak izan behar dituztela umeak gidatzeko eta, aldi berean, esperimentatzeko aukera emateko.

Amy Orben-ek eta haren kideek baliabide sozialak erabiltzeak bizitzako gogobetetasunean duen eragina aztertu dute, eta jakin dute alde handia dagoela adin desberdinetako neska eta mutilen artean. Sare sozialen erabilera-maila handiek bizitzako gogobetetasun txikiagoa dakarte 11 eta 13 urte bitarteko nesketan eta 14 eta 15 urte bitarteko mutiletan.

Lie Detectors-ek –Belgikako kazetaritzako GKE bat– oraintsu eginiko argitalpen batek erakusten du ez datozela bat, inolaz ere, umeek eta gazteek baliabide sozialen inguruan egiten duten erabileraren eta haien inguruko helduen erabileraren artean. Hura aurkikuntza garrantzitsua da, eta agerian jartzen du zeharkako tresnak garrantzitsuak direla hezkuntzan garai digitalean bizitzeko; izan ere, hezitzaileak bizi duen errealitate digitala eta ikaslearen errealitate digitala desberdinak izan daitezke, nor ari den nor hezten kontuan izan gabe. Dokumentu horrek, era berean, gure ikuspegiaren beste elementu bat ere jartzen du agerian: umeak helduak baino trebeagoak izaten direla. Ondorioek erakusten dute umeek askoz ere gaitasun handiagoa dutela faltsututako irudiak identifikatzeko helduek baino.

UNICEF-en 2021eko Haurren Mundu Egoerari buruzko txostenak erakusten du linean daudenean eta sare sozialetan erregularitasunez aktibo izatean, umeek konfiantza handiagoa lortzen dutela eta, ondorioz, askoz ere seguruago sentitzen direla linean. Datu lasaigarri bat da ume gehienek badakitela nola bilatu laguntza, Interneten zerbait deserosoa iruditzen bazaie. Ehunekoa areagotzen doa, konexioaren erregularitasunarekin. Erabiltzaile hasi berrien % 74k badakite nola eskatu laguntza familiar, beste heldu batzuei edo lagunei. Baliabide sozialak aldi behin erabiltzeak areagotu egiten du ehuneko hori % 86ra arte, eta, ohiko erabiltzaileen kasuan, % 93 seguru sentitzen dira laguntza eskatuta. Hala ere, umeen ehuneko handi batek uste du eskolak ez diela erantzuten, inolaz ere, linean ikasteko dituzten arazoei.

**ZURE SEMEA EDO
ALABA MUNDU
DIGITALEAN**



TRESNAK ETA HARDWARE-A

Mundu digitala gure egunerokotasunaren erdigunean dago; filmak ikusi eta kudeaketa ofizialak egiteko, ikasteko... Hartatik ibiltzeko gai izatea beharrezkoa da, erabat. Bilakaera teknologikoaren bidez sartu gara mundu honetan, zenbait tresna baliatuz. Nahiz eta etengabe ari diren tresna berriak eta hardwareak garatzen, garrantzitsuenak ordenagailu pertsonalak, eramangarriak, tabletak eta telefono adimendunak dira. Sasoi digitalean hazten diren umeentzat, tresna horiek egunerokotasuneko hezkuntza- eta gizarte-jardueren funtsezko alderdi bilakatzen dira.

Zerbitzu gehienetarako, Internetera konektatuta egon beharra dago, kable bidezko konexio baten bitartez (gero eta ezohikoagoa da), wifiaren edo datu-konexioaren bidez. Azken horrekin hasteko, garrantzitsua da kontuan hartzea datu-konexioak mugatuak izan daitezkeela eta gailuak deskargatzen edo igotzen duen datu kopuruaren arabera ordaindu behar dela. Normalean, telefonoan edo tabletan jartzen duzun SIM txartel baten bidez dabil. Erabaki behar duzu zure semearen edo alabaren datuengatik ordaindu nahi baduzu. Segurua da, baina, batzuetan, garestia. Alternatiba wifi konexioak dira; seguruak edo irekiak izan daitezke. Seme-alabei erakutsi behar diezuna da wifi irekiak eta sare publikoak, pertsona kopuru handi batekin pasahitz partekatuadutenak (halanola eskola-sareak), doakoak izaten direla, bainazure lana ikustea nahi ez zenuen beste pertsona batzuek ere linean egiten duzuna ikus dezaketela.

Hezkuntza-xedeekin, ikastetxeek umeei eska diezaiakete ikasgelara haien gailuak eramateko (“ekarri zeure gailua”, “BYOD” sistemak direlakoak). Kasu horietan, gurasoek ziurtatu behar dute umeei lan egiteko moduko tresna bat dutela eta, gainera, tresna hori xede horretarako egokia izatea. Oro har, gailu bat zenbat eta potenteagoa eta sofistikatuagoa izan, orduan eta garestiagoa izango da. Nahiz eta ez den oso ohikoa gama altuko tresnak behar izatea hezkuntza-ingurune orokor batean, funtsezkoa da umeei ondo ekipatutako tresna bat ematea, ikaskuntzan zentratzeko aukera emango diena, etenik gabe. Lineako gida batzuek gailu egoki bat aukeratzen lagun dezakete. Ez da gutxietsi behar zer garrantzitsua den tresna bat ume batek ikaskuntza digitalean onena lor dezan..

Nahiz eta normalena den umeei beren boligrafoak eta koadernoak ekartzea, eztabaida handia dago BYOD politikaren inguruan, zehazki inklusioari dagokionez, gailu digitalen izaera pertsonalarekin alderatuta. Helduaroan ez genituzke smartphone partekatuak erabiliko, eta jende gehienak antzeko sentimenduak ditu tabletan edo ordenagailu eramangarrien inguruan. BYOD politikak meritu asko dituzte, eragin positibo argia ikaskuntzan, eta horiek gainditu egiten dituzte sortzen diren kezkak (esaterako, jolastea edo sare sozialetan sartzeko, lan egin beharrean), bereziki eginkizun garrantzitsuak badaukartza. Era berean, hari esker, ikasleek jarrai dezakete ikasgelatik kanpo lanean jardun dutenarekin. BYOD politika inklusiboa izateko, ikastetxeek jakin behar dute laguntza nork behar duen eta, horretarako, gailu bat eman behar dute eta, gailu digitalak erabiltzen badira, mailegurako liburutegi batek edo antzeko irtenbideek egon behar dute, gailu bat erosi ezin dutenentzat. Gurasoek funtsezko eginkizuna izan dezakete liburutegi hori sortzen, esaterako, haien lantokiko gailu erabiliak eman ditzakete. Eskolarentzat, garrantzitsua da, era berean, ulertzea nork ezin duen izan Internetarako sarbidea eskolatik kanpo, eta, ondorioz, haien politika digitalak diseinatzea. Gurasoek jakin behar dute Internetarako sarbideari buruzko kezkak adierazten, eskolak kontuan ez badu.

4 elementu nagusi izan behar dituzu kontuan, zure semearentzat edo alabarentzat gailu bat erosteko orduan. Ia ezinezkoa da lau laukitxoak markatzea, eta, beraz, aukeratu zure semearentzat edo alabarentzat zein diren garrantzitsuenak, haren adinaren, egingo duen lanaren eta trakestasunaren arabera.

1. IRAUNKORTASUNA

Oro har, zenbat eta txikiagoa izan umea, orduan eta gehiago pentsatu beharko dugu haren gailuaren erresistentziaren inguruan. Nahiz eta zure semea edo alaba on-puska izan, litekeena da ikaskideak zakarjartzea. Kolpeak saihestezinak dira. Gailu sendo bat kalitatezko materialekin fabrikatu badago, pisu pixkabat du eta, puntuak irabazteko, zipriztinak jasaten ditu. Eramangarri baten kasuan, egiaz tatu bandak, antza denez, behin eta berriz irekitzea eta ixtea jasango duela.

2. ERAMANGARRITASUNA

Zure semeak edo alabak gailua soinean sarri eraman behar badu, dela eskolara joateko edo itzultzeko dela klase batetik bestera joateko, txikia eta arina izatea abantailatsua da. 2 kg-ko eramangarri bat benetako karga bat da motxila bati gehitzeko. Jakina, gailu txiki batek pantaila txiki bat eskatzen du. Esaterako, 8 hazbeteko pantailako diagonal bateko tableta batek arriskua du txikiegia izatea hezkuntza-aplikazio batzuetarako.

3. ESKURAGARRITASUNA

Gurasoen kezka nagusia prezioa izaten da. Umea zenbat eta handiagoa izan, orduan eta gehiago pentsatu behar da gastuan. Lehen hezkuntzarako, gehieneko mugak 500 euro inguru izan beharko luke, eta 16 urteko ume batek etekin handiagoa aterako lioke 900 euroko eramangarri bati, esaterako.

4. ETEKINA

Gutxienez, edozein gailu izan behar du gai Internetetik ibiltzeko eta oinarrizko aplikazioak erabiltzeko. Nerabe nagusiagoek baliteke informatikako beharrian trinkoagoak izatea baliabideei dagokienez. Arazoak izaten has daitezke, baldin eta haien gailuak zaharrak, merkeak eta ez oso arinak badira. Diru asko gastatu ezean, prozesaketaren potentzia igotzen denean, bateriak denbora gutxiago irauten du; beraz, ziurtatu egunean sei ordu iraun dezakeen bat erosten duzula (eragozpena izan daiteke ikastetxean eramangarria entxufatu behar izatea).

Umeei haien gailua emateak dakar haietan osasungarria dena baino denbora gehiago emateko arriskua. Pantailaren aurrean emateko denbora mugagabeak eragin esanguratsua izan dezake umeen berehalako eta etorkizuneko osasunean. Bereziki, 5 urtetik beherako adinekoen kasuan, pantailaren aurrean egoteko denbora kontzienteki arautu behar da, kalterik egon ez dadin.

Hala, bada, gurasoek hasi beharko lukete planteatzen zer den beharrezko pantaila-denbora eta zer ez: umeak 3 ordu ematen ditu egunean pantailaren aurrean, etxeko lanak prestatzeko soilik, edo jolaserako erabilera librerako 2 ordu dira? Azken kasu horretan, arrazoizko denbora da? Esate baterako, jarraitzen du umeak denbora eta energia nahikoa izaten kirola egiteko, lo egiteko eta jateko? Komunikazio zintzoa, irekia eta aldebikoa guraso eta seme-alaben artean funtsezkoa da oreka hori bermatzeko (eta ezinbestekoa da, era berean, familia-bizitzaren beste edozein eremutan).

Garrantzitsua da pantailaren aurreko denbora pasiboaren eta pantailaren aurreko denbora aktiboaren artean bereiztea; lehenengo kasuan, umeak, pantaila baten aurrean eseri, eta pasiboki begiratzen dio, eta, bigarrenean, pantaila komunikatzeko, informazioa bilatzeko, elkarreraginean jarduteko eta beste hainbatetarako erabiltzen da. OMEren gomendioek kontuan dute desberdintasun hori, pantailaren aurreko denbora pasiboaren muga zehatza aholkatzeko eta erabilera aktiboa egiten den kasuetan pantaila aurrean egoteko gomendatutako denbora askoz ere zabalagoa eskaintzeko orduan. Era berean, funtsezkoa da gurasoak seme-alaben alboan egotea, haiek pantaila bat erabiltzen ari direnean. Marrazki bizidunak ikustea ere pantaila aurreko denbora aktibo bilaka daiteke, hari buruz hitz egiten badugu, pantailan gertatzen dena kontatzen bada, abesten bada, etab.

Gainera, kontuan izan behar da erabiltzeko modua pantailaren aurrean ematen den denboraren kasu guztietan: ez da komeni pantaila distiratsuegia izatea; ez da komeni umea pantailara adi-adi begira denbora-tarte luzez egotea, etenaldirik gabe, eta pantailaren aurrean hartzen duen jarrera fisikoa komeni da egokiena izatea (gerrialdea behar bezala finkatuta izatea, distantzia nahikoa gordetzea, etab.). Umearen “laneko” ingurunearekin zerikusia duten ohitura osasungarriak izateak aurrerago osasun- eta mugikortasun-arazoak prebenitzen lagun dezake. Eskola-umeen kasuan, funtsezkoa da ikaskuntza-ingurune egokia izatea, bai eskolan bai etxean. Gurasoek kontuan izan behar dute teknologia digitalak aldatu egin dituela haren inguruko eskakizunak, eta eskolei ere eskatu behar zaie, ondorioz, eralda daitezten. has changed the requirements for this, and demand schools to also transform accordingly.



IKASTEKO PLATAFORMAK

Hezkuntzan tresna digital ugari erabiltzen dira. Kasu batzuetan, plataforma bera zenbait xedetarako erabiltzen da (esaterako, barne-komunikaziorako ikasgela barruan, eginkizunak eta emaitzak bateratzeko, ebaluaziorako). Plataforma oso konplexuak abantaila bat du: sarbide-puntu bakarra du, baina arriskua izan dezake, era berean, datu-kudeatzaile bakarrak informazio gehiegi batu ahal izatea. Aldi berean, zenbait tresna aldi berean erabiltzeak dakar sarbide-puntu ugari egotea (saioa hasteko oso desberdinak izan daitezkeen txartelekin), eta datuen eramangarritasunik ezak lan-karga handiagoa edo informazio-galera ekar dezake.

Plataforma-mota nagusi bi daude, eta biak oso erabiliak:

- Hezkuntzarako zehazki garatutako tresnak.
- Hezkuntza-xedetarako egokiak diren tresna orokorrak, baina zehazki horretarako diseinatuak izan ez direnak.

Batzuetan, hornitzaile orokorrek plataforma espezializatuak izaten dituzte hezkuntzarako, baina datuen tratamenduak jarraitzen du plataforma nagusiei lotuta (esaterako, Google Classroom).

Tresna gehienek lineako plataforma-motaren batean dabilta; horrek esan nahi du datuak hirugarrenen zerbitzari batean kargatzen direla eta alde horrek kudeatzen dituela, alegia, zerbitzuan lan egiten duen enpresak. Gurasoentzat, funtsezkoa da jakitea seme-alabek partekatzen dituzten datuekin zer gertatzen den, datu sentikorrek eta pertsonalak izan – hala nola izenak, argazkiak edo posta elektronikoen helbideak– ala, oro har, “sentikortzat” jotzen ez diren datuak izan –esaterako, eskolako idatzizko lanak–. Hala ere, sarritan, oso zaila izaten da informazio hori lortzea. Eskolak erabili nahi dituen plataformak direnean, gurasoek exiji dezakete eskolak ematen duen informazio hori. Umeek haien xedetarako erabili nahi dituzten edo gurasoek seme-alabekin erabili nahi dituzten plataformen kasuan, informazio hori kontzienteki bilatu behar da.

Zaila da eskuragarri dauden plataforma guztiak sakon ezagutzea. Eskola-testuinguruan, kontuan hartu beharreko elementu garrantzitsu batzuk daude. Eskolak haietakoren bati buruzko informaziorik ematen ez bada, gurasoek aktiboki egin behar dituzte galdera egokiak. Esate baterako:

- Aukeratutako plataforma erabat funtzionala da, kuotarik ordaindu behar izan gabe? Doako erabilerarako aukera badago, publizitatea edo ezagutu beharreko bestelako merkataritza-elementurik dago? Doakoa ez bada, nork ordaintzen du, inklusibotasuna kontuan izanda?
- Onartuta dago plataforma, eskola osoan erabiltzeko? Hala ez bada, benetan beharrezkoa da erabiltzea?
- Plataforma batetik bestera aldatu behar bada, aldaketa horretarako beharra erakusten duen informazio nahikoa dago? Nola transferituko dira plataforma berrira aldaketaren aurretik batutako datuak (esaterako, umeen aurretiko lana)?
- Zein dira plataforma jakin bat erabiltzeak ekar ditzakeen onurak eta arriskuak?

Hezkuntzaren digitalizazioko adituek COVIDEA ekimenerako eta Digital with Purpose-rako eskuragarri dauden plataformen zerrenda nahiko osoa bildu dute. Zerrenda dokumentu honen amaieran dago, eranskin gisa. 2021ean bildu zen; beraz, baliteke oraintsu ireki diren plataformak ez agertzea.

SARE SOZIALAK



Mundu digitalean, maniobrarako tarte gutxi dago, baliabide sozialen plataformen inguruan. Komunikazio pertsonalaren, marketinaren eta imajina ditzakegun gauza gehienen zati dira.

Baliabide sozialen plataformak lineako plataformak dira; partekatzeko eta edukiak ikusteko espazio bat eskaintzen dute. Partekatutako edukien itxura, modua eta publizitatea oso bestelakoak dira plataforma batean eta bestean. Hala ere, haien ezaugarri bateratzaile nagusia da erabiltzaile guztiek parteka dezaketela beste erabiltzaile batzuek ikus dezaketen eduki-mota bera.

Umeek plataforma horiek erabiltzen hasteko adina oso azkar ari dajaiten. Duela urte batzuk, aurrenerabeak ziren sare sozialen publiko nagusia, eta eduki gutxi zeuden haiei zuzenduta; gaur egun, berriz, plataforma batzuek adin goiztiarretako umeei ematen diete ardura, lehen hezkuntzako, besteak beste, haien negozioak arrakasta izan dezan. Hori dela eta, gurasoek jakitun egon behar dute sare sozialak zer diren eta zer onura eta arrisku dakartzaten.

Lehen erabakia, ume batek eta aitak edo amak kasu ideal batean elkarrekin hartutakoa, umea sare sozialetan erregistratzeko adinari buruzkoa da. Plataforma askok AEBetako lege baten araudia aplikatzen dute; lege horri COPPA deritza (ez da baliozkoa Europan), eta ez dute aukerarik ematen 13 urtetik beherakoak erregistratzeko. Hori horrela, gurasoek erabaki garrantzitsua hartu behar dute. Haien semeak edo alabak erregistratu nahi dutenean, umearen jaiotza-data alda dezakete, edo erregistroari uko egin, harik eta 13 urte bete arte. Garrantzitsua da jakitea ziurrenik gurasoak aurretiko erregistroa onartzen ez duen gurasoak ez duela jakingo semea edo alaba erregistratuta dagoela; beraz, gomendagarria izan daiteke aurretiaz erregistratzea (baina ez proaktiboki eskaintzea). Hala, aitak edo amak parte hartuko du umeak sare sozialak ustiatzeko egiten duen prozesuan. Aldi berean, horrek zenbait kezka planteatzen ditu, ondoko erabilerarako. Oso garrantzitsua da konturatzea, plataforma gehienek jaiotza-data aldatzeko aukerarik ematen ez dutenez, adingabeek helduentzako edukietara sartzeko aukera ere izango dutela, hala nola ordainketa-zerbitzuetara edo ekitaldien gonbidapen mugagabeteetara, benetan 18 urte bete aurretik.

Gurasoek ikasi behar dute, era berean, seme-alabekin sare sozialak errespetuz erabiltzen. Horren alderdi bat sarbide-datuak dira; guraso batek ere ez du eskubiderik seme-ari edo alabari haiek exijitzeko, intimitaterako duten eskubidearen zati baitira. Borondatez partekatzen badira, neurrian erabili behar dira, “ikuskatzen” jardun gabe. Beste alderdi bat gurasoek eta seme-alabek sare sozialetan elkarreraginean jardutea da. Oro har, ez da ezer gertatzen semearen edo alabaren argitalpen batean edo hura etiketatuta dagoen batean “atsegin dut” sakatzen baduzu, baina ez egin ama- edo aita-izaeraren ondoriozko komentariarik. Jakin behar duzu ez dela elkarrizketa pribatu bat, eta hobe da argitaratu aurretik edozein online/offline elkarreraginaren inguruan ados jartzea.

Plataforma batzuek –hala nola Instagramek eta Twitterrek– hainbat eduki-mota partekatzeko aukera ematen dute. Bai testu-mezuak bai irudiak eta bideoak, besteak beste; erabiltzaileek nahi duten edozein eduki sor eta parteka dezakete, betiere plataformako terminoek eta baldintzek horretarako aukera ematen badute. Beste plataforma batzuk, hala nola YouTube eta TikTok, bideo-dukietan espezializatuago daude: erabiltzaileek bideoak parteka eta ikus ditzakete, eta beste pertsona batzuekin harremanetan jar daitezke, bideo horien azpian, komentarioen atalean.

Sare sozialetan, bi alderdi nagusi daude, jendearekiko harremanaz gainera, gurasoek kontuan izan beharrekoak: umeak ikus dezakeena eta parteka dezakeena.


1

Lehen alderdiari dagokionez, zoritxarrez, kaltegarriak edo aztoratzaileak izan daitezkeen edukiak ez dira ezezagunak sare sozialetan. Esaterako, indarkeria grafikoa eta sexu-irudiak sarritan argitaratu ohi dira plataforma horietan. Adin desberdinetan, egokia izan daiteke ala ez hain egokia ume batek eduki horietan parte hartzeko aukeratu behar izatea. 13 urteko ume batek jakingo du, beharbada, ez duela klik egin behar bortitza dela argi ikuten den bideo batean, baina ume txiki batek, nahi gabe, traba egiten dion edukiarekin egin dezake topo.

2

Bigarren alderdia umeak partekatzen duena da. Oro har, Interneten partekatzen den guztia “hor kanpoan” geratzen da, betiko. Itzulipurdika gauden bideo bat partekatzeko, baliteke inolako kalterik ez eragitea. Bideo bera informazio pertsonalarekin partekatzeko, hala nola helbidearekin edo kreditu-txartelarekin bigarren planoan, askoz ere arriskutsuagoa da.

Hori dela eta, gurasoek ziurtatu behar dute seme-alabek ulertzen dutela partekatzen dutenak ondorioak izan ditzakeela. Informazio pertsonala partekatzeko norbait barrengarri uzteko bideo bat partekatzeko bezain kaltegarria izan daiteke, eta umeak ikasi behar du zergatik saihestu behar duen gauza bakoitza. Bestalde, gurasoek jakitun egon behar dute sare sozialek zer arrisku ekar dezaketen, nahiz eta umeak haiek erabiltzeko baimenik ez izan: umearen edukiak jarrai dezake haren baimenik gabe partekatua izaten.



Kontuan izan beharreko beste puntu bat, adingabeak partekatzen duenari dagokionez, nork partekatzen duen da. Sare sozialen ia plataforma guztietan, erabiltzaileek haien pribatutasun-konfigurazioa alda dezakete. Horrek eragina du edukia nork ikus dezakeen eta/edo nork jardun dezakeen elkarreraginean. Gurasoek ziurtatu behar dute umeek ulertzen dutela norekin partekatzen dituzten edukiak eta zer ondorio izan ditzaketen. Gaur sare sozialetan partekatutako bideo bat hamarkada bat barru berriro irten daiteke eta hain atsegina edo dibertigarria izateari utzi.

Gainera, kontuan izan behar da adingabeak erakartzeko fenomenoak: umeekin harreman afektiboak –sarritan, sexu-abusua edo beste delitu-jarduera batzuk izanik xede– finkatzen saiatzen diren helduen erasoak jasan ditzakete umeek. Hori dela eta, garrantzitsua da, lehenik eta behin, komunikazio irekia egotea gurasoen eta seme-alaben artean, umearen hurbileko lagunei dagokienez, lagun susmagarri berriez hitz egin ahal izateko. Bigarrenik, garrantzitsua da komunikazio ireki horretan iritzirik ez egotea, adingabeak lineako elkarreraginen inguruan duen edozein kezka edo zalantza azaldu ahal izateko eta, hala, adingabeak erakarri ahal izatea saihesteko.

Muturreko kasuetarako, hala nola helduentzat soilik diren edukietan parte hartzea eragozteko, plataforma askok aukera ematen dute gurasoen kontrolak ezartzeko, baina gurasoen aldetiko kontrol horietako batzuk ez dira umeen eskubideei buruzko araudira egokitzen; beraz, kontuz ibili beharra dago haiek erabiltzean. Plataforma batzuek, era berean, adingabeak babesteko sistema integratuak dituzte: Snapchat-ek, esaterako, soilik ematen du aukera helduen profilak mundu guztiarentzat ikusgai egoteko. Doikuntza hori ez dago umeentzat eskuragarri. Plataformak, era berean, gurasoen aldetiko kontrol-zentro bat sartu zuen; hartan, gurasoek berriki dezakete umeak norekin dauden harremanetan, baina ez zeren inguruan. Nolanahi ere, umeek Interneten aurrez aurre izan ditzaketen arriskuak arintzeko modurik onena eta seguruena da komunikazio irekia eta zintzoa izatea.

Helduentzako edukiez hitz egitean, eduki pornografikoak aipatu behar dira. Sexuari buruzko gai zailez eta pornoarekiko arazoez hitz eginez gero, aukera gehiago daude kalteak saihesteko, debekatzen saiatzean baino.

DIGITALIZAZIOA ETA OINARRIZKO KONPETENTZIAK



Irakurketa, idazketa eta kalkulua gainerako trebezia gehien oinarritzat jotzen dira, akademikoak izan ala egunerokotasunekoak izan. Beraz, kezka handia eragiten du hezitzaile guztiongan, gurasoengan barne, digitalizazioak gaitasunen garapena oztopatzeak. Kezka ugari daude, sarritan hedabideetako artikuluek elikatzen dituztenak, gai horren inguruan. Ulergarria da, batez ere kontuan hartuta errealitate honetan gero eta gehiago direla eskolara doazen umeak eta, azkenean, oinarrizko eskolatzea oinarrizko gaitasun horiek berenganatu gabe amaitzen dutena.

Hala ere, oso gutxitan aipatzen da teknologia digitalak, ongi erabiltzen bada, trebetasun horiek eskuratzen lagun dezakeela. Programa egokigarri batzuek aukera ematen diote umeari akatsak eginiko arloetan praktikan jarduteko. Gainera, programa askok trebetasunen garapena eta praktika jarduera ludikoen bidez eskuratzeko aukera eskaintzen dute, umeentzat erakargarriagoa izateko. Soluzio gamifikatuek (jolasaren ezaugarriak izan ditzakete, baina ez du zertan kasu hori izan) eraginkortasuna erakutsi dute; izan ere, askorentzat erakargarriagoak eta interesgarriagoak dira, eta ikaskuntza-soluzio gamifikatuak digitalak dira.

IRAKURKETA DIGITALA

Eztabaida handia dago gailu digitaletan irakurtzearen inguruan eta irakurtzeko pantailak eta Interneta erabiltzeak duten eraginaren inguruan. Bi mezu nagusiek, itxuraz kontrajarriak ematen badute ere, ez daude kontraesanean. Batetik, badirudi argi dagoela umeei liburu gutxiago irakurtzen dituztela tresna digitalak erabiltzen dituztenetik. Bestetik, askoz ere testu gehiago irakurtzen dituzte –gehienak laburragoak eta errazagoak dira–, Interneten denbora ematen badute. Irakurketa “erabilgarri” gehiago dago eta apreziazio artistikoagatik irakurketa gutxiago. Umeei testu luzeak eta, sarritan, ulertzeko erraza iruditzen ez zaien hizkuntza batean irakurtzeko gero eta interes gutxiago dute. Aldi berean, linean irakurtzeko eguneroko eginkizunetan informazio gehigarria egoten da, aurkezpen alternatiboak, hala nola ahoz gorako irakurketa edo testu sinplifikatuak. Gurasoek ere arreta jarri behar dute seme-alabei literatura-testuak aurkezteko orduan. Modurik onena da egunero ahoz gora irakurtzen hastea eta ohitura horri irakurtzen ikasi eta askoz ere geroagora arte eustea. Familiarentzat eguneroko erritual bilaka daiteke erraz.



Gailu digital batean irakurtzeak zenbait abantaila ditu, batik bat barnean dituen zenbait laguntza-tresna ezagutzen eta erabiltzen badituzu. Lehenengo eta behin, letra-mota eta -tamaina egokitu ditzakezu. Hura, ikusmen-arazoak dituztenei laguntzeaz ez ezik, dislexia dutenentzat ere baliagarria izan daiteke. Frogatuta dago sans-serif letra-tipoak (adibidez, Arial, Calibri edo Open Sans), letrek “oin”ik ez dutenak, haien irakurtzeko errazagoak direla. Gailu askok ahoz gora irakurtzeko irakurketa-eginkizuna dute, eta hark irakurleari laguntzen dio hitz konplexuago baten ahoskera zuzena entzuten. Modu berean, testu konplexuak edo atzerriko hizkuntzetan irakurtzen laguntzen duten tesauoaren edo hiztegiaren funtzio integratuak daude.

Aldi berean, badirudi nahikoa frogatuta dagoela pantaila batean liburu bat irakurtzean testuaren ulermena eta murgiltzea ez dela hain sakona.

Idazketa

Beste eztabaidagai bat idazketarena da. Umeei teklatua zuzen erabiltzen irakatsi behar zaie, mekanografo batek erabili behar duen bezala? Bigarren galdera horren erantzuna ezetza da, baina eskola askok prestakuntza-mota hori ematen diete txikienei. Ume gehienek beren kontura ikasten dute makinaz idazten, eta haiek asmatutako sistema bat ez da “mekanografia” bertsioa baino okerragoa.

Jarraitzen al du izaten beharrezkoa eskuz idazten irakastea? Erantzuna bikoitza da. Irakurketaren eta idazketaren irakaskuntzaren ikuspegi batzuek umeei, hasieran, letra larriz idazten baino ez diete irakasten. Trebetasunak behar dira pentsamenduak edo informazioa jasotzeko; batzuetan ez dago ukipen-pantailarik edo teklaturik eskuragarri eta, beraz, hura beharrezkoa da, erabat. Badirudi lotura bat dagoela gauzak eskuz idaztearen eta ikaskuntza hobearren eta iraunkorragoaren artean, eta eskuz idaztea letra larriz idaztea baino azkarragoa izan ohi da.

Bestalde, digitalki idazteak zuzenketa ortografikorako bide eman dezake, baldin eta zuzentzaile ortografiko ona erabiltzen bada. Aldi berean, sarrera prediktiboko metodoen eta autozuzenketaren ondorioz, ez da hain beharrezkoa ortografia zuzena ikastea. Hala ere, ziurrenik, mundu guztiak izango du autozuzentzailearekin esperientzia barregarriren bat; beraz, ortografia zuzena ikasteak jarraitzen du erabilgarria izaten, dela testu mekanografiatu batean dela eskuz idatzitako batean.

ARITMETIKA

Nahiz eta aro digitalak sarritan kalkuluak norberaren ordeztu egiten dituen tresnak ekarri dituen, oraindik ere aritmetikako oinarriko nozioak ikasi eta erabili behar dira. Guztiok ezagutu izan dugu, noizbait, 4,50 euroko pieza bat ordaintzeko 5eko billete bat eman eta 50 zentimo itzultzeko makinaz fidatzen den saltzailerik. Baina, era berean, gehiegizko konfiantza duenik ere ezagutu dugu, diru kopurua sartzean akats bat egin (5 euroko billete baten ordeztu 50eko bat markatzea) eta bezeroarentzako eta dendariarentzako galerak eragiten dituen gehiegizko konfiantza duenik. Era berean, gero eta sarriago ikusi ohi dugu baten batek diru nahikoa ez daramala eskudirutan, elikagai guztiak ordaintzeko. Halakorik gerta ez dadin, garrantzitsua da kalkulatu irakastea. Interneten eskuragarri dauden gero eta finantza-produktu gehiagorekin oso garrantzitsua da ehunekoak, truketak eta antzeko nozioak ulertzea. Zerrenda askoz ere luzeagoa izan daiteke.

Tresna digitalen eta adin bakoitzera egokitutako programen bidez, aritmetikaren ikaskuntza atsegina izan daiteke, eta, hala, matematika eskola-ikasgai zaila delako ideia orokortuarekin amaitu daiteke. Tresna batzuek ikasleei laguntza behar duten arloetan laguntzen diete; horretarako, praktikarako ariketa ludikoak edo ez hain ludikoak sortzen dituzte arlo ahulenetarako, eta, aldi berean, denbora aurrezten da ikasleak dagoeneko ezagutzen duenaren inguruko praktikarik ez egiteko. Teknologia digitalen erabilerak, era berean, hainbesteko eskola-izaerarik gabe trebetasunak eskuratzeko aukera ematen du, askotan trebetasunak garatzeko arloa aipatu gabe, baina, esaterako, zatikiak modu ludikoan erakutsiz.



KODETZEÄ

Gailu digitalen programak kodean oinarritzen dira. Bigarren planoan gauzatzen den kodea garatzaileek idazten dute. Kodea, funtsean, eskura dagoen tresnaren bidez irakurtzen da, eta hark dihardu kodeak dituen jarraibideekin bat etorritik. Nabigatzaile edo bideojoko bat abiaraztea, harekin elkarreraginean jardutea, hura ixtea edo amaitzea... Kodeak zehazten du programa batek zer eta nola egiten duen.

Programatzen ikastea oso onuragarria izan daiteke. Trebetasun horrek, lan-merkatuan, eskari handia du, baina, gainera, pentsamendu logikoa modu praktikoan aplikatu beharra dakar eta arazoak konpontzeko pentsaera sustatzen du. Berez, trebetasun ona izan daiteke adin goiztiarretan ikasten hasteko. Soluzio argiak, sarritan, kodetzetik datoz, baita etapa goiztiarretan ere, hala nola ataza txikien automatizazioa.

Jakina, ez dugu buruan izan behar gurasoek programatzen ikasiko dutela, haien seme-alabek programatzen badakitelako. Hala ere, egiten ari denaren oinarritzkoa ulertzeak edo umeari lanean zertan aridirenerakusteko eskatzeak guraso eta umeen arteko konfiantza areagotzea eta are gehiago irekitzea ekar ditzake. Gainera, gurasoek jakin dezakete, era berean, kodetzearen oinarriari esker arazoak ikuspegi berrietatik bideratu eta haien logika hobetu ditzaketela.

Aldi berean, umeentzako kodetze-programa ugari ez daude esplizituki lotuta programazio informatikoarekin edo programazio-lengoaiekin; pentsamendu logikoa eta diseinu-prozesuak irakasteko modu bat dira. Baliagarria izan daiteke, eguneroko kasu askotan; esaterako, asteko menu bat kodetze bidez planifika daiteke. Ume txiki asko programazioan modu ludikoan hasten dira; horretarako, sarritan, pantailarik ez duten gailu digitalak erabiltzen dituzte. Ezagunenak, gaur egun, Bee-Bots eta Lego Robotics dira. Eskola askok programa-mota hori aplikatzen dute. Programaziorako beharrezkoa den pentsamendu sistematikoa bereziki onuragarria da ikasteko zailtasunak dituzten umeentzat. Hala ere, Bee-Bot batekin ikasteak ez du zertan ekarri programatzaile informatiko bilakatzea.



```
if ($(window).scrollTop() > header1_initialDistance) {
  if (parseInt(header1.css('padding-top'), 10) == header1_initialDistance) {
    header1.css('padding-top', '' + $(window).scrollTop() - header1_initialDistance);
  }
} else {
  header1.css('padding-top', '' + header1_initialDistance);
}

if ($(window).scrollTop() > header2_initialDistance) {
  if (parseInt(header2.css('padding-top'), 10) == header2_initialDistance) {
    header2.css('padding-top', '' + $(window).scrollTop() - header2_initialDistance);
  }
} else {
  header2.css('padding-top', '' + header2_initialDistance);
}
```

JOKOAK ETA IKASKUNTZA

Hezkuntza- eta gizarte-erabilerez gainera, entrenamendu elkarreragilea mundu digitalaren beste erabilera bat izan daiteke (baina ez du zertan independentea izan). Hainbat eta hainbat tableta, ordenagailu eramangarri eta telefono adimentsu daude. Joko horietako batzuk online dira eta beste batzuk, offline.

Gehienetan, lineako jokoetan beste jokalarri batzuekin jokatzen da: esaterako, bi futbol-taldeek elkarren aurka jokatu behar dute; talde bakoitza pertsona erreal batek kontrolatzen du, etxean, pantaila baten atzean. Sarritan, jokalarriak elkarrekin komunika daitezke testu-mezu bidez eta “ahots-txat” baten bidez (funtsean, jokoan integratuta dauden telefono-deien bidez), elkar ezagutzen ez badute ere. Hura bizigarri bat izan daiteke hizkuntzak eta gizarte-trebetasunak ikasteko; izan ere, umeei aukera dute beraiez bestela pentsatzen duten edo hizkuntza erabat desberdinean hitz egiten duten beste batzuekin elkarlanean jarduteko.

Offline jokoetan (eta online batzuetan ere, bakar-jokoan), pertsona erreal aktibo bakarra jokoan erabiltzailea izan ohi da, baina pertsonaia aurreprogramatuak ere izaten dira, haiekin elkarreraginean jardun ahal izateko. Gero eta joko gehiagotan, adimen artifizialaren bidez, pertsonaia aurreprogramatuek erabiltzailearen portaeraren aurrean erreakziona dezakete eta, hala, mundua dinamikoki moldatu.

Bai lineako jokoek bai lineatik kanpokoek ikasteko ahalmen handia dute. Hala nola arazoak konpontzea, pentsamendu sortzailea, talde-lana, atzerriko hizkuntza bat ikastea... Jokoek lagundu dezakete ikaskuntza dibertigarria izan dadin, eta aukera eman dezakete eskolek daukaten ekipamenduagatik behar bezala eskaini ezin dituzten trebetasunak hobetzeko.

Beharbada, gaur egun, zentzu horretan, Minecraft izango da adibiderik ezagunena; joko horren bidez, offline eta online joka daiteke. Erabiltzaileak baliabideak jaso, etxeak eraiki eta, haren historiaren bidez, mundu itzela araka dezake. Elkarrekin lan eginez, erabiltzaileek etxe bat, laku bat edo gaztelu flotatzaile bat eraiki dezakete, besteak beste. Hura lortzeko, hala ere, haien ekintza-bilakaera planifikatu behar dute, eginkizunak banatu eta lankidetzan jardun, aurrera egiteko eta arazoak saihesteko. Trebetasun horien guztien balioa kalkulazina da, eta bizitza guztirako dira. Trebetasun horiek, era berean, askoz ere errazago ikasten dira borondatez eta modu entretenigarrian, eskolako idazmahai batean eserita baino.



Nahiz eta jokoek sare sozialek ekar ditzaketen arrisku berak izan (aurretik aipatu ditugunak, hala nola informazioa partekatzea eta ezezagunekin elkarreraginean jardutea), oso baliagarriak izan daitezke umeen garapenerako. Jokatzeko ohitura osasungarriak izatea onuragarria izan daiteke umearen hezkuntzarako, eta, era berean, aurretik sekula hitz egiten entzun ez duen arloen gaineko interesa piztu dakioke (esaterako, arkeologia).

Gainera, jolasak mendekotasuna sor dezake horretarako joera duten pertsonengan. Gurasoek beren seme-alaben jolas-ohiturak ezagutu behar dituzte, ohitura kaltegarriak ezartzen ez dela bermatzeko. Sarritan, erraza da prebenitzea, batez ere umeak bere bizitzan jarduera-mota ugari dituela bermatuz. Hala ere, zaila da jolasen gaineko mendekotasuna gainditzea (beste edozein mendekotasun bezala, sare sozialen gainekoa kasu). Jolasaren balizko onurak aitortu egin behar dira, baina dagokion lekutik: entretenitzeko modu bat da, eta, beraz, ezin da benetako bizitzako bete beharren eta osasunaren gainetik jarri, ez eta horietan kalterik sortu ere. Hala ere, esan beharra dago lantzean behin egun oso batez ordenagailu jokatzeak (adibidez, euria egiten duen egun batean) ez duela berez mendekotasuna sortzen.

Noski, jolas batzuk ez dira egokiak adin-talde guztientzat. Jolas grafikoak gogaikarriak izan daitezke haurrentzat, eta puzzleetan oinarritutako jolas batzuk konplexuegiak. Mikrotransakzioen bidez (hau da, diru kopuru txikiarekin egiten diren erosketak, jokoan sariak lortzearen truke), haurrek finantza-arazoak eragin diezazkiokete familiari, oharkabean. Ondorioz, gurasoek adi egon behar dute seme-alabak online dendetara sartu ez daitezen. Gainera, zenbait jokok altxorkutzak edo beste joko-mekanika batzuk dituzte, jokoaren barruan beste joko bat proposatzen dutenak, baina, berez, azken hori ez da jolasa eta, gainera, ausazko objektu birtualak ditu. Herrialde batzuen ustez, hori jolasaren antzekoa da eta, beraz, horren arabera arautu dute.

Aldi berean, joko batzuek alfabetatze finantzarioa garatzen laguntzen duten elementuak dituzte. Hori gaitasun garrantzitsua da, eta sarritan eskolan ez da garatzen. Joko askok aukera ematen dute aurrekontuak erabiltzen ikasteko, edo irabazten eta gastatzen dena ulertzeko; adibidez, lanak eginez diru birtual nahikoa irabazten baduzu, zure janzkera edo tresnak hobetu ditzakezu.

Kontuan hartu behar da, halaber, errealitate birtualean oinarritutako entretenimendua geroz eta arrakastatsua dela. Errealitate birtualeko betaurrekoen bidez (ordenagailuen edo bideo-kontsolen osagarriak, oro har) eskuratu daitezkeen entretenimendu-eduki interaktibo eta ez-interaktiboak geroz gehiago dira. Haurrek mundu birtual horietan sartzeko tentazioa senti dezakete eta, ondorioz, gurasoei beharrezko hardwarea eskatu. Oro har, errealitate birtualak kostu handia du (bai gailuak bai eduki digitalak garestiak dira), eta erabiltzeko zailagoa izaten da osagarri "tradizionalak" baino, hala nola inprimagailuak baino. Ondorioz, zailagoa izan daiteke gurasoek egoera kontrolatzea.

Era berean, beste edozein gailu digitalek ez bezalako murgiltze-maila ematen dute; izan ere, betaurrekoak jantzita dituen bitartean, badirudi erabiltzailea inguratzen duen espazio erreala mundu birtuala dela. Haurrei gogorarazi behar zaie, jolasa alde batera utzita, errealitate birtuala errealitatetik bereizita dagoela. Gainera, jolastu bitartean erabiltzaileek ez dutenez beren ingurunea ikusten, errealitate birtualeko betaurrekoak erabiltzean maiz gertatzen dira istripuak.

Hori guzti hori kontuan hartuta, gurasoek beren seme-alaben jolasak ezagutu behar dituzte (oinarrizko mailan), esku artean duten jolasa segurua dela ziurtatzeko. Gainera, haur baten oinarritzko interesak ezagutzeak seme-alabekin konpromiso handiagoa hartzen lagun diezaike gurasoei. Horrek, era berean, eragin positiboa izan dezake haien arteko harremanean. Gurasoek beste pauso bat eman eta seme-alabarekin jolastu nahi badute, loturak estutu ditzakete. Gainera, distantzia ez da honetarako oztopo. turn can have a positive impact on their relationship.

**PENTSAMENDU
KRITIKOA ETA
KOMUNIKABIDEAK**



Informazioa lehen pentsaezina zen erritmoan argitaratzen eta partekatzen da mundu digitalean. Munduko edozein lekutan zerbait nabarmena gertatzen bada, hori estaltzen duten masa-komunikabideak minutu gutxi barru egon daitezke eskuragarri globoaren beste erdian. Telebistaren, irratia eta, batez ere, Interneten bidez (eta, bereziki, sare sozialen bidez), albisteak oso azkar zabal daitezke. Gainera, Interneten izaera inkontrolatu eta deszentralizatuak aukera ematen du ia edonork bere pentsamenduak eta iritziak partekatzeko, okerrak edo arriskutsuak izan arren.

Sarean dagoen informazio-kopuru izugarria dela eta, pentsamendu kritikoa funtsezkoa da; hau da, edozein informazio-iturriren fidagarritasuna eta egiazkotasuna ebaluatzeko gaitasuna eduki behar da. Hurrekezez, helduek ere erregulartasunez ikasi eta erabili behar duten trebetasuna da. Pentsamendu kritikorik izan gabe, gerta daitezke, adibidez, iritzi erradikalak hartzea edo joera arriskutsuekin bat egitea.

Albisteen eta beste informazio-iturri batzuen egiazkotasuna bereizteko zaila izan daiteke. Facebook, adibidez, ezaguna da albiste faltsuen aurkako neurririk ez duelako. Gurasoek arreta berezia jarri behar diete gazteei zuzendutako joerei. TikTok plataformak, esate baterako, kritikak jaso ditu haurren bizitzarako arriskutsuak ziren edukiak sustatzen zituzten modako bideoak behar bezala ez zaintzeagatik. Pentsamendu kritikoa ume-umetatik sustatu eta praktikatu behar da, hartara herritar kontziente eta seguruak prestatzeko.

Haurrak informazio jakin baten aurrean zalantzak, kezak edo ulermen-falta adierazten dituela ziurtatuz soilik garatu ahal izango du trebetasun hori. Familia-ingurunea funtsezkoa da pentsamendu kritikoa sustatzeko. Horren barruan sartzen da gurasoen erabakiak zalantzan jartzea ere, haurra horiekin ados ez badago. Gurasoek, jakina, ez dute zertan beti bat etorri seme-alaben argudioekin, baina horiek entzutea oso garrantzitsua da pentsamendu kritikoren gaitasuna garatzea ahalbidetuko duen ingurune ireki eta zintzoa sustatzeko.

Askotan, gurasoak bakarrik uzten dira pentsamendu kritikoi dagokionez. Ikerketen emaitzek erakusten dute irakasleak ez direla oso onak pentsamendu kritikoi; orokorrean, herritarrek baino gaitasun gutxiago dute gertaerak eta iritziak bereizteko, horixe izanik pentsamendu kritikoren oinarria. Gurasoek beren seme-alabekin jolas dezakete pentsamendu kritikoa sustatzeko, baina gogoratu behar da helduak, oro har, ez direla beti oso onak horretan. Elkarrekin jokatzeko, gurasoek eta seme-alabek beren trebetasunak gara ditzakete. Hizkuntza askotako online ekimen ugari daude, komunikabideen edukien zuzentasuna epaitzeko duzun gaitasuna neurtzen laguntzen dutenak. Aldi berean, lineatik kanpoko jarduerak ere egin daitezke; hala nola eztabaidak sortu edo jarduerak/bidaiak elkarrekin planifikatu daitezke, hurrei horretarako informazioa biltzen utziz.

**BULLYINGA ETA
ZIBERBULLYINGA**



Pertsona batzuek joera dute besteak epaitzeko eta modu antipatikoan jokatzeko. Haurrak ez dira salbuespena. Haurrek elkar jazartzen dute: elkar iraintzen, mehatxatzen edo hertsatzen dute, uste den estatus bat lortzeko edo, besterik gabe, dibertitzeko.

Mundu digitalen ondorioz, arazo hau konplexuagoa eta orokorragoa da. Neurri batean, Interneten interkonexioak eragina du, ezezagunei birtualki elkarreragiteko aukera ematen dielako. Hein handi batean, ordea, online eztabaidetan anonimotasuna eta izenordainak gailentzen direlako gertatzen da. Erabiltzaileek askotan beren benetako nortasuna mozorrotzeko aukera izaten dute –batzuetan plataformaren termino eta baldintzen aurka–. Maskara horren atzean, ziberjazarpena askoz gupidagabeagoa eta zaurigarriagoa izan daiteke, erasotzailea ez delako balizko errepresalien beldur.

Ziberjazarpenak hainbat forma har ditzake; aukerak birtualki –eta zoritxarrez– infinituak dira. Gelako edo taldeko kideek zurrumurru desatseginak edo argazki umiliagarriak zabal ditzakete. Mehatxuak mezupribatuetan bidal daitezke, edo publiko zabalagoarekin partekatu.

Jakina, ziberjazarpena publiko egiten den neurrian, gurasoak errazago izan ahalko du horren berri. Haur batek beretzat gorde ditzake mezu pribatu deserosoak, baina mehatxuak eskola-talde batean egiten badira, irakasleek gurasoei abisatu ahal izango diete. Gurasoek prest egon behar dute horrelako albisteak entzuteko eta kudeatzeko, ziberjazarpena oso zabalduta baitago eta ia ezinezkoa baita prebenitzea.

Ziberjazarpena ia edozein ingurune digitaletan gerta daiteke: online ikasgeletatik hasi eta sare sozialetara, bideojokoetatik pasatuz. Beraz, gurasoek jakin behar dute oso aukera erreala dela une jakin batean seme-alabak ziberjazarpenari aurre egin behar izatea online igarotzen duen denboran. Kasu horietan, haurrak eroso sentitu behar dira gurasoengana kontsolamendu eta/edo laguntza bila joateko. Horretarako, berriro ere, komunikazio irekia eta zintzoa funtsezkoa da.

Gerta daiteke, era berean, gurasoek beren seme-alaba norbaiti ziberjazarpena egiten ari zaiola jakitea. Kasu horietan, haurrarekin hitz egin behar da ziberjazarpenak eragiten duen kalteaz, berriro gerta ez dadin. Litekeena da portaera hori egiten duen haurrak ikaskideen presioaren ondorioz jokatzeko. Hori ez da aitzakia, baina askotan lagungarria da jazarpen-portaera ulertzeko. Hala ere, jazarpena ikasitako portaera da; gehienetan, haurrak konfiantza duen heldu batengandik ikasten du. Ziberjazarpenaren aurretik, sarritan, etorkizuneko jazarlea lineaz kanpo jazartzen aritu izan da. Alde horretatik, garrantzitsua da gurasoek jakitea seme-alabek norekin ematen duten denbora eta zer egiten duten elkarrekin, azaletik bada ere. Hala ere, gurasoek ez dute beren seme-alaben elkarrekintza bakoitzaren xehetasun guztiak ezagutzeko nahia izan behar, horrek gezurra eta zintzotasun-eza ekar baititzake.

ZER EGIN
BERRIKUNTZAK
DAUDENEAN

Gurasoentzako baliabide hau 2022ko udazkenean amaitu zen. Hau irakurtzen ari zaren unean, baliteke tresna berriak egotea, “mundu guztiak” erabiltzen dituen gailu berriak atera izana eta digitalizatu diren eremu berriak aurkitu izana. Hona hemen aholku batzuk gauza hauei buruz gehiago jakiteko:

- 1** Kotsultatu bezeroaren arretarako orrialdeak eta, bereziki, “gurasoentzako” edozein atal. Ez izan zalantzarik bezeroaren arretarekin harremanetan jartzeko, ziur ez bazaude.
- 2** Galdetu irakasleari ea ikastetxean baliabide berriren bat sartu den, eta ziurtatu zure galderen erantzunak dituela, hau da, badakiela zer erabili nahi duen. Irakasleek erantzunik ez badute, ez onartu teknologia berria erabiltzea.
- 3** Bilatu laguntza guraso-taldeetan.
- 4** Seme-alabekin batera esploratu: agian beraiek hobeto erabiliko dute, eta azalpenak eskatzeak ere pentsatzera bultzatzen ditu.
- 5** Komunikabideetan zerbait irakurtzen baduzu, ziurtatu iturriak fidagarriak direla eta kazetariak ez dituela artikuluan aurkeztutako elementuak testuingurutik atera. Kontuan izan artikuluen izenburuak engainagarriak izaten direla, erakargarriagoak izateko.

**ESKOLAREN ETA
GURASOEN ARTEKO
HARREMAN DIGITALAK**



Tresna digitalek bi norabideko komunikazioa erraztu dute: eskolen eta gurasoen artekoa, hain zuzen ere. Eskola askok komunikazio-politikak sartu dituzte lineako eta lineatik kanpoko komunikazioaren arteko oreka bermatzeko, baita denbora errealeko komunikazioaren eta komunikazio asinkronoaren artekoa ere. (SAILS proiektuaren esparruan ikastetxeetako zuzendariek eskura duten baliabideak ildo horretako laguntza ematen die ikastetxeei. Eskola-liderrak irakurtzera bidera ditzake).

Teknologia digitalak arazo batzuk konpon ditzake, hala nola denbora gutxi dugunean edo gurasoek ez dutenean hitz egiten irakasleek erabiltzen duten hizkuntza. Hala ere, oreka osasuntsua behar da, komunikazio digitalak oraindik ez baitu lortu aurrez aurreko bilerak ordezkatzeko ahalbidetuko duen mailarik. Telekonferentzia-tresnarik onenak ere motz geratzen dira gorputz-hizkuntza transmititzeko orduan, adibidez.

Komunikazioa bat-bateko ere bihurtu da, eta horrek une eta egoera deseroso asko eragin ditu. Lehenik eta behin, zaila da itzarotea eta lasaitzea. Eskolara fisikoki joan behar duzunean, pare bat minutuko paseoak hausnarketarako denbora eskain diezazuke, eta baliteke irakasleari berehala deituz baino askoz lasaiago egotea. Jakina, baliteke ibilaldi horretan zure estres-maila handitzea, baina, oro har, hobe da bulkadaz ez jardutea.

Irakasleei zein gurasoei zaila egiten zaie beren burua kontrolatzea eta bestea asteko 7 egunetan egunean 24 orduz libre ez dagoela ulertzea. Horregatik, komeni da jokabide-kode bat sortzea, lankidetzan, honako alderdi hauek arautzeko: noiz egon behar duten gurasoek eta irakasleek telefono bidez eskuragarri; alde bakoitzak zelako azkartasunaz erreakzionatu behar duen testu-mezu baten edo posta elektronikoko baten aurrean; eta zer jakinarazi behar den berehala. Kode hori eskuratu ondoren, bi alderdiek kode horretaramugatu behar dute, eta elkarrekiko akordio horiek betetzen dituztelaz iurtatu..

Teknologia digitalek benetako parte-hartzea eta bi norabideko komunikazioa ahalbidetzen dituzte. Askotan, eskolek komunikatzen dutela uste dute, nahiz eta berez informazioa buletin edo antzekoetan bidaltzera mugatzen diren. Hori ez da komunikazioa, eta gurasoek argi utzi behar dute galderak eginez, albiste horiei erantzunez eta irakasleei galdetuz. Hala, bi norabideko truke egokia ahalbidetuko da. Kontuan izan behar da noiz inplikatu behar diren beste guraso batzuk edo noiz sartu bakarrik, beste guraso batzuekin osatutako taldean. Herrialde askotan, gurasoen WhatsApp-eko edo Facebook-eko eztabaida-taldeak (irakaslea barne hartzen ez dutenak) eskolentzat arazo larria bihurtzen ari dira; izan ere, askotan, irakasleari buruz beren bizkar eztabaidatzeaz gain, informazio partzalean oinarritzen dira edo ez dute inolako informaziorik ematen.

Gurasoen eta eskolaren arteko komunikazioaren beste elementu garrantzitsu bat haurra da. Baliabide honek haurraren eskubideetan oinarritutako ikuspegia sustatzen duenez, biziki gomendatzen dugu "haiei buruzko ezer ez haiek gabe" politika aplikatzea. Beraz, gure komunikazio presentzian edo birtualean haurren presentzia beti hartu behar da kontuan. Egia da irakasleei ez zaiela gustatzen gurasoek haien bizkar hitz egitea, baina haurrentzat ere ez da sentsazio ona eta ez da onuragarria bazterrean geratzea. Aldi berean, gurasoen eta irakasleen arteko interakzio guztietan haur bat egoteak tximistorratz gisa ere balio izaten du helduek beren mezuak kontu handiagoz formulatzeko.

ESKOLAREN ETA FAMILIAREN ARTEKO HARREMANETARAKO PLATAFORMAK

Eskola askok komunikazio-plataformak sartu dituzte gurasoei noten berri emateko, absentzien balantzea egiteko, gurasoei eskolan landutako gaien berri emateko eta elkarri mezuak bidaltzeko. Kasu batzuetan, ekimen nazionalak daude plataforma jakin bat erabiltzeko. Lege-eta hezkuntza-mailako alderdiak kontuan hartu behar dira horrelako tresna bat erabiltzerakoan.

Lehenik eta behin, eskola batek mota horretako plataforma bat sartu nahi duenean, gurasoen baimena eta haurraren baimena behar ditu, plataformaren hornitzaileari edozein datu pertsonal emateko. Horretarako, datuen tratamenduaren irudi argia eman behar dute: nork jarduten duen plataforman, zein zerbitzari erabiltzen den datuak gordetzeko, eta nork izan dezakeen gurasoen eta haurraren datuetarako sarbidea. Gertatu da gurasoek mota horretako plataforma bat sartzea eragotzi ahal izan dutela, datuak babesteko orduan kezka sortzen zuelako (hau da, gobernuak datu sentikorrak eskuratzeko aukera zuelako). Halakoetan, datuak tratatzeko baimena esplizituki ukatu da. Gatazka horiek saihestu egin daitezke gurasoek plataformaren aukeraketan parte hartzen badute eta aipatutako gaiei buruzko informazio zehatza badago.

Garrantzitsua da jakitea eskolak ezin duela gorde behar-beharrezkoa ez den daturik haurrari edo gurasoei buruz. Datuak babesteko Europako araudiaren funtsezko printzipio bat da, GDPRn jasota dagoena. Erabat debekatuta dago “badaezpada ere erabilgarria izan litekeen” datuen eta informazioaren tratamendua. Eta printzipio hori kontuan hartu behar da, baldin eta edozein informazio, artxibo edo datu mota horretako plataforma batean kargatzen bada.

Hezkuntza aldetik, gaia konplexuagoa da. Eskolatik etxera bidaltzen ziren ohar edo koaderno zaharrek oso gune garrantzitsua eskaintzen zuten gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazioa negoziatzeko. Umeak eskolatik ekartzen zituen gauzak. Albiste txarrak baziren, gurasoekin partekatzeraz ausartu behar zuten. Eta, albiste onak baziren, ospakizunerako unea izaten zen. Plataformek gurasoei aukera ematen badiete albiste horien berri izateko seme-alabak ezagutu aurretik, une horiek galdu egiten dira. Gainera, testuingurutik kanpo, eztabaidatzeko eta azaltzeko aukerarik eman gabe, albiste horiek bat-bateko eta beharrezkoa ez den ekintza batera eraman dezakete, esaterako gurasoak irakasleari deitzea eraginez. Eskola askok ez dute informazio hori gurasoen esku jartzen umeari jakinarazi eta 24 orduko epea igaro arte, haurrak informazio hori zuzenean partekatzeko aukera izan dezan. Hori gertatzen ez bada, gomendagarria da seme-alabarekin adostea plataformara elkarrekin bakarrik sartzea (edo, are gehiago, seme-alabei gurasoen sarbide-kodea laga dakieke, baliabide honen egileetako batek egin zuen bezala), eta erritual bat egin.

Plataforma gurasoei eskolara gauzak bidaltzeko, zereginak esleitzeko eta ordainketak eskatzeko erabiltzen bada, lehen aipatutako jokabide-kodearen barruan adierazi behar da familientzat eta eskolarentzat zenbat denbora egon behar den erabilgarri. Aldi berean, plataforma horiek batzuetan larrialdi-mezuetarako erabiltzen dira (adibidez, ez dago eskolarik ur-isuri handi baten ondorioz). Familiak ezin direnez goizero plataformara sartzera behartu, beste komunikabide batzuk erabili behar dira horretarako. Gainera, erabiltzen den tresnak aukera eman behar du mezua entregatu dela nolabait frogatzeko. Adibidez, horrelako larrialdietan WhatsApp talde bat erabiltzen bada, eta bidaltzaileak mezu hori hainbat familietara iritsi ez dela egiazta badezake, eskolak babesa eman behar die eskolara joaten diren haurrei.



DBEO ETA HAURREN ESKUBIDEEKIN LOTUTAKO BESTE ARAZO BATZUK



Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak, oro har, adin guztietako haurrei beren iritzia emateko eskubidea ematen die. Halaber, helduak behartzen ditu haurren iritzia entzun dadin bermatzera. Beraz, garrantzitsua da “ezer ez haiei buruz haiek gabe” printzipioa sistematikoki aplikatzea, eta, horrez gain, haur bati buruzko edozein informazio ematean, bere adinerako egokia, ulergarria eta irisgarria izango den modua baliatzea.

Baliabide honen lege-azterketan aurrerago ikusiko den bezala, GDPRko legegileek (Europar Batasuneko Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) ez zituzten haurren eskubideak xehetasunez kontuan hartu. Hala ere, haurren baimena izateko eskubidea jasotzen da, beren heldutasunaren arabera. Erregelamendu orokor gisa, haurrek baimena eman dezakete datuak tratatzeko, gurasorik gabe, adin jakin batetik aurrera: 13 eta 16 urte bitartean, estatu-kidearen arabera. Hala ere, erregelamenduaren arabera –bereziki, EBko estatu-kide guztiek berretsi dutelako Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa–, baimen bateratua beharrezkoa da adin hori baino lehen.

Europako ikastetxe askok baimen orokorra eskatzen dute ikasturte batean seme-alaben argazkiak eta bideoak erabiltzeko. Hala ere, praktika hori ez da onargarria. Izan ere, dagoeneko zenbait kasu judizialek frogatu dute prozedura hori ez dela zuzena. Beharrezkoa da haurraren baimena lortzea. Gurasoen baimena DBEOk araututako baimen-adinetik beherako kasuetarako baino ez da.

Haurren heldutasuna dela eta, komeni da argazki bakoitza erabiltzeko baimena kasuan kasu eskatzea, argazkiak edo bideoak erabiltzea behar-beharrezkoa bada. 14 urtetik aurrera, Espainian, gurasoen baimena ez da beharrezkoa. Hala ere, haur batek ahazteko eskubidea du, eta, beraz, eskolari eska diezaioke, datuen tratamenduaren arduraduna den aldetik, argazki jakin bat ezaba dezala urte batzuk geroago ere. Argazki edo bideo bat Internetetik erabat ezabatuko dela bermatzea zaila denez, hobe da identifikatzeko moduko haurrik azaltzen ez duten argazkiak edo bideoak bakarrik erabiltzea; hau da, produktuak, bizkarrak, hankak eta eskuak bakarrik erakustea.

Haurren eskubideei buruzko beste kezka nagusietako bat jabetza intelektualaren eskubideak dira. Adingabeen kasuan, gurasoek tutore gisa jarduten badute ere, haurrak dira oraindik eskubideen titularrak. Hori dela eta, haur batek sortutako marrazki, pintura, poema, testu eta abar ezin dira askatasunez erabili; aitzitik, haurraren baimena (ken daitekeena) eta gurasoena lortu behar dira, adibidez, eskolako webgunean irudi publikoen galeria batean partekatzeke.

ERABAKIAK MODU PARTE-HARTZAILEAN

HARTZEKO PROZEDURA

Gurasoek aspalditik eskatzen dute ikastetxeetako erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzea. Teknologia digitalak, itxuraz, errazago bihurtzen du partaidetza hori, oso erraza baita galdetegiak, inkestak eta antzeko tresnak sortzea. Arlo honetan, gurasoentzako hiru gogoeta nagusi daude.

1

Erabakiak hartzeko prozeduran benetan parte hartu ahal izateko, informazio egokia behar da. Horregatik, garrantzitsua da datuak guraso guztientzat eskuragarri egotea, hizkuntza ulergarrian. Kasuan kasuko hizkuntza behar bezain ondo hitz egiten ez duten gurasoentzat teknologia digitalak itzulpen artifizialeko soluzio errazak eskaintzen ditu. Aldi berean, sarritan hizkuntza-erregistroaren kontua da, hizkuntzarena baino gehiago; beraz, irakasleek, eskolako arduradunek eta gurasoek ziurtatu egin behar dute ez dela nahasdura sortzen duen esamolderik erabiltzen edo informazioa ondo azaltzen dela.

2

Erabakiak modu parte-hartzailean hartzeko, eztabaida eta elkarrizketa behar dira. Ondoren, bozketa egingo da. Benetako eztabaidak izateko, aurrez aurreko bilerak egin behar dira, komunikazioa batez ere hitzik gabekoa baita. Horregatik, bilerak online inkestekin ordezkatzeko tentagarria bada ere, halakoetan elementu parte-hartzailea galdu egiten da.

3

Era berean, erraztasunak jarri behar dira haurrek erabakiak hartzen parte har dezaten. Beren buruarentzat parte hartzeko eskubidea eskatzen duten gurasoek beren seme-alabentzat ere eskatu beharko lukete.

PORTAFOLIO ELEKTRONIKOAK

Portafolio elektronikoak gero eta gehiago erabiltzen dira gurasoei eskolan gertatzen dena erakusteko. Ondo ezartzen badira, prestakuntza ebaluatzeko bitarteko oso garrantzitsua dira, seme-alabei erakusten baitiote nola garatu dituzten trebetasunak ikasturtean zehar. Abiapuntu gisa, zorro elektronikoaren edukiak haurrentzat eta irakaslearentzat pentsatuta daude. Gurasoekin partekatzeak ez du arazorik sortzen, baina beste edozein pertsonarekin partekatzea (adibidez, ikaskideekin, beste irakasle batzuekin edo publikoarekin) oso bestelakoa da. Horrek esan nahi du gurasoek, haurren eskubideen zaindari diren aldetik, oso gertutik zaindu behar dutela nor sar daitekeen portafolio elektronikoetara. Linean partekatuz gero, lehen aipatutako datu-babesaren azterketa aplikatzen da.

E-portfolioetan, haurrak praktika gisa edo ikasturtean zehar sortu dituen produktuak ikus daitezke. Horrek esan nahi du horietako gehienek trebetasunak garatzeko etapak erakusten dituztela. Nahiz eta haurrak zerbait “perfektua” sortu ikasturtearen edo ikasketa-unitatearen amaieran, produktu horretarako bidea eta portafolioaren zati guztiak seguru asko ez daude besteentzako pentsatuta. Kasu ideal batean, haurrak aukera eduki beharko luke soilik behin-behinean partekatzeko produktu horiek irakasleekin eta gurasoekin. Hala ere, eskola-ziklo oso batean eskuragarri edukitzea baliagarria izan daiteke haurrari zer bilakaera izan duen erakusteko. Beraz, zorro elektroniko baten edukiak partekatzea delikatua da. Hobe da fisikoa balitz bezala tratatzea.

GURASOAK IRAKASLEEI PRESTAKUNTZA EMATEA

Europan, hezkuntza formalean, irakasleak zahartzen ari dira herrialde gehienetan. Aldi berean, aro digitalean jaio ziren pertsonen seme-alabak eskola-adinera iristen eta eskolara joaten hasi dira. Guraso horiek, natibo digitalak deitzen direnak, ia beti hobeto menderatzen dute teknologia digitalen erabilera irakasleek baino, azken horiek gehienetan etorkin digitalak baitira. Guraso askok gaitasun handiagoa duten enpleguetan lan egiten dute. Haurren onerako, irakasle eta gurasoen interesekoa da elkarrekin lan egitea teknologia ahalik eta ondoen erabiltzeko.

Familiaren eta eskolaren artean komunikazio-maila handia badago, eta irakasleek gurasoak bazkideztat hartzen badituzte (horixe da ideala), ikaskuntza-mota hori naturala bihurtuko da. Ikastetxeetako zuzendariak irakasleei eskaintzen dizkieten garapen profesionaleko programak diseinatzen dituztenean, gurasoak hartu behar dira kontuan prestatzaile edo entrenatzaile gisa. Halaber, guraso gisa proaktiboa izan daiteke, hau da, zilegi da zuzendariarekin edo irakasleekin harremanetan jarri eta esperientzia eskaintzea. Hala ere, zure seme-alabaren irakaslearen prestatzaile edo entrenatzaile izateko, baliteke prestakuntza behar izatea. Gurasoen erakundeek prestakuntza-mota hori eskaintzen dute.

Aldi berean, gurasoek bere seme-alabarengandik prestakuntza edo entrenamendua jasotzea ere pentsatu behar dute, eta irakasleei aukera hori eskaini.

ZER ESPERO DEZAKEZU HEZKUNTZAKO PROFESIONALENGANDIK?

Gurasoekiko (eta seme-alabekiko) lankidetzaren oinarri hartuta lan egiten duen eskola batean, errespetuzko ikuspegi bat espero dezakezu (eta behar duzu). Pentsamolde hori duen eskola batean, eskolako atak –fisikoak zein birtualak– hitzez hitz irekita egon behar dira. Kasu ideal batean, horrek esan nahi du une oro ongi etorria zarela, baina, era berean, errealitate digitalean elkarren artean adostutako mugen barruan zaude, batez ere denborari dagokionez. Herrialde batzuek neurri murriztaileak aplikatzen dituzte; beraz, baliteke atea fisikoki irekita egotea, haurrek eta irakasleek eskolatik kanpo gauzak egin ditzaten, baina ez barruan. Hala ere, sarbide digitalean ez dago halako lege-murrizketarik.

Pentsatzekoa da gero eta eskola gehiagotan jaso dutela prestakuntza irakasleek gurasoen aniztasunaz, beharrez eta eginkizunaz jabetzeko, eta familiak eta komunitateak, oro har, hezkuntzan duten eginkizunaz jabetzeko. Era berean, pentsatzekoa da haurren behar espezifikoak jakitun direla eta banakako beharrak kontuan hartzen dituztela (horiek orokortu beharrean). Hala ez bada, prestakuntza-mota hau has dezakezu ikastetxeko zuzendariarekin.

Eskolak eta irakasleek baldintza bereko bazkide gisa tratatu zaitzatela espero dezakezu, hau da, eskolan zure ezagutzak eta esperientzia bilatzea. Zure esperientzia pertsonalak garrantzitsuak izan behar dira haientzat, eta zurekin batera lan egin behar dute zure seme-alabaren ikaskuntza eta garapen hobearren alde, baita gizartearen eta tokiko komunitateen interesaren alde ere.

Janet Goodalkek (2017) honela laburbildu zituen gurasoen eta irakasleen arteko harremanen oinarriko printzipioak:

- 1** Eskolako langileek eta gurasoek haurraren ikaskuntzan laguntzen parte hartzen dute..
- 2** Eskolako langileek eta gurasoek bakoitzak lankidetzari ematen dizkion ezagutzak baloratzen dituzte.
- 3** Ikastetxeko langileek eta gurasoek haurraren ikaskuntzaz eta ikaskuntzarekin hitz egiten dute..
- 4** Ikastetxeko langileek eta gurasoek lankidetzan jarduten dute haurraren eta besteen ikaskuntza bultzatzeko.
- 5** Eskolako langileek eta gurasoek errespetatu egiten dute bakoitzaren eginkizun eta ekarpenen autoritate legitimoa, ikaskuntzari laguntzeko.

LEGEGINTZAKO AURREKARIAK

Giza eskubide guztiak bezala, haurren eskubideak barne-hierarkiaren mende daude. Bizitzaren babesa, giza eskubideei buruzko legeria orokorrean bezala, gainerako eskubide guztien gainetik dago. Hala ere, badirudi nazioko eta eskualdeko erregulatzailleek erabateko askatasuna dutela haurren eskubideak hierarkizatzeko eta garrantzia emateko ingurune digitaletan. Arriskuen prebentzioan soilik oinarritutako ikuspegiak haurren eskubideak orekatzearen eta errespetatzearen garrantzia galtzen du. Aldiz, arriskuak arintzeko ikuspegiak oreka lor dezake elkarren artean lehiatzen diren haurren eskubideen artean, eta, aldi berean, haurrek ingurune digitaletan duten arriskua minimizatu.

Jarraian, haurrek Interneten dituzten eskubideei buruzko Europako eta nazioarteko arauak aztertuko ditugu.

EUROPAR BATASUNA

DATUAK BABESTEKO ERREGELAMENDU OROKORRA (DBEO)

Europar Batasuneko (“EB”) estatu-kide bakoitzean zuzenean aplikatu daitekeen tresna loteslea da DBEO, 2016an onartua. Helburu hauetarako garrantzitsuena 8. artikulua da: Adingabearen baimenari aplikatu dakizkiokeen baldintzak, informazioaren gizarteko zerbitzuei dagokienez.

Artikuluak, funtsean, 16 urtetan ezartzen du online ingurueta baimen-adina, nahiz eta estatu-kideei aukera ematen dien baimena 13 urtera murrizteko. Horrenbestez, EBko estatu-kideek debekatuta dute baimen-adin txikiagoa sartzea. Espainiak 14 urtetan ezarri zuen muga.

Erregelamenduak, gainera, proposatzen du hizkuntza sinplista eta haurrei egokitua erabili behar dela datuak tratatzeko testuingurueta haurrei zuzendutako edozein komunikaziotan (12. artikulua eta kontuan hartu beharrekoen 58. zenbakia). Kontrol-agintari nazional guztiek ere arreta berezia jarri behar dute haurrei zuzendutako online jardueretan (57. artikulua). Haurrek babes zabalago hori merezi dutela uste da, beren datu pertsonalak partekatzearen ondorioak ulertzen ez dituztelako (kontuan hartu beharrekoen 38. zenbakia).

Hala ere, 16 urtetik beherakoek gune jakin batzuk erabiltzeko debeku orokor hori ezartzea (gune asko ezin baitira datuen tratamendurik gabe erabili) arriskuak prebenitzeko modu gogorra da. Haurrek beren erabakiak hartzeko gai ez direla ulertzen du, eta, beraz, edozein arriskutatik babestu behar direla. Arriskuen prebentzioaren izenean, adierazpen- eta elkartzeko-akatasunerako eskubideak kaltetu izan dira, besteak beste.



NAZIOARTEKO ZUZENBIDEA ETA POLITIKA

HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO NAZIO BATUEN KONBENTZIOA (“HENBK”)

HENBK nazioarteko tresna juridiko garrantzitsuena eta zabalena da haurren eskubideen arloan. Ondorioz, testuinguru digitalerako ere garrantzi handia du. Garrantziaren arabera ordena berezirik gabe, eskubide hauek dira, edo izan beharko lukete, online ingurunean inpakturik handiena dutenak:

- Adierazpen-askatasunerako eskubidea (13. artikulua).
- Pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasunerako eskubidea (14. artikulua).
- Modu baketsuan elkartzeko eta biltzeko askatasunerako eskubidea (15. artikulua).
- Intimitaterako eskubidea (16. artikulua).
- Informazioa eskuratzeko eskubidea (17. artikulua).
- Hezkuntzarako eskubidea (28. artikulua).
- Aisialdirako, jolaserako eta kulturarako eskubidea (31. artikulua).
- Ustiapen ekonomiko, sexual eta bestelakoen aurka babesteko eskubidea (32., 34. eta 36. artikulua, hurrenez hurren).



HENBK-I BURUZKO OHAR OROKORRA

2021ean, Nazio Batuetako Haurren Eskubideen Batzordeak 25. Behaketa Orokorra onartu zuen, ingurune digitaletan haurrek dituzten eskubideei buruzkoa. Batzordeak lau printzipio asmatu zituen, haurren eskubideen aplikazioa eta oreka lortzeko maila nazionalan.

Lehenik eta behin, estatuek diskriminaziorik eza bermatu behar dute. Haurrek ingurune digitaletarako sarbide berdina eta eragin orra izan behar dute. Teknologiaren bidez gorrotoa edo tratu bidegabea komunikatzea ere tratu diskriminatzailetzat hartzen da.

Bigarrenik, haurren interes gorenak teknologia digitalei buruzko ahalegin nazionalen berri eman behar du. Teknologia horien erregulazioak, diseinuak, erabilera eta kudeaketak haurren interes gorena izan behar dute kontuan. Estatuek kontsultak egin behar jizkiete haurren eskubideen defentsarako erakundeei. Garrantzitsua da azpimarratzea haurren eskubide guztiak kontuan hartu behar direla, informazioa bilatu, jaso eta zabaltzeko eskubidea barne (ez soilik edozein kaltetatik babestua izateko eskubidea).

Hirugarrenik, estatuek haurrak babestu behar dituzte beren bizitzarako eta garapenerako arriskuetatik. Mehatxu horien barruan hainbat jarduera sartzen dira, hala nola eduki bortitzak eta ausazko jokoak.

Laugarrenik, estatuek bermatu behar dute haurrek teknologia digitalen bidez eman ahal izango dituztela beren iritziak, eta errespetatu egingo direla. Esparru hori arautzerakoan, estatuek behar bezalako arreta jarri behar diete haurren kezkei eta iritziei.

Behaketa Orokorrak nabarmentzen du beharrezkoa dela nazio-mailan espezializatutako politikak eta arauak ezartzea, ingurune digitaletan haurren eskubideei heltzeko.

Aurreko laburpen laburretik argi eta garbi ondoriozta daitekeenez, Batzordeari funtsezkoa iruditzen zaio (arrazoiz) estatuek haurren eskubide guztiek mundu digitaletan duten garrantzia aitortzea. Arriskuen prebentzioaren ikuspegi globalak eta zabalak, harrigarria bada ere, eskubideak errespetatzearen aurkakoak dira, hala nola informazioa eskuratzearen eta norberaren iritzia adieraztearen gaineko eskubideen aurkakoak.

Arriskuen prebentzioaren izenean, guraso edo agintari batek haur bati plataforma digitalak erabiltzea eragotz badiezaioke, eskubide horien aurkako eraso bat egiten da, inolako arrazoi berezirik gabe. Batzordeak azaltzen duen bezala, haurren babes proportzionala, diskriminaziorik gabeko tratua eta interes gorena gailendu behar dira haurren online presentziari buruzko erabakiak hartzean..

Internet parekorik gabeko tresna izan daiteke haurren eskubideak betetzeko. Sarearen bidez, adierazpen-askatasuna, pentsamendu-askatasuna, elkartzeko askatasuna, informazioa eskuratzeko aukera, aisialdirako, jolaserako eta kulturarako askatasuna eta hezkuntzarako aukera bezalako eskubideak sustatu daitezke, offline munduan ezinezkoa den modu batean.

Foro publikoen bidez, haurrek beren iritziak eman ditzakete, online, kanpoan egiterik ez duten moduen bidez eta audientzien aurrean. Hezkuntza digitalaren bidez, irakaskuntzan erabilitako materialen kalitatea eta aniztasuna nabarmen handitu daitezke, irakaskuntza-metodoen kalitatea eta aniztasuna areagotu ahala. Jokoek jolasteko modu berriak ematen dituzte, baita jolasaren bidez ikasteko ere, eta, aldi berean, ikaskideekin elkartzeko eta informazioa eskuratzeko modu berriak ahalbidetzen dituzte.

Aitzitik, beste eskubide batzuk arriskuan egon daitezke ingurune digitaletan. Berezi, intimitaterako eta esplotazioaren aurka babesteko eskubideak hartu behar dira kontuan. Hala ere, ondorio nagusia ez da izan behar eskubide horiek babestu behar direnik lehen aipatutako gainerako eskubide guztien kontura. Arriskuak ahalik eta gehien arindu behar dira, gainerako eskubide guztien errespetua bermatuz, inguruabarrak kontuan hartuta ezinezkoa ez bada behintzat. Bizitzarena eta biziraupenarena ez den eskubiderik ezin da besteen gainetik nagusitu, oreka arduratsurik gabe. Beraz, ahal bada, ebaluazioa egin behar da kasuz kasu.

HAURREN ALDEKO NAZIO BATUEN FUNTSAREN ("UNICEF") EZTABAIDA-DOKUMENTUA

Haurren Aldeko Nazio Batuen Funtsak (UNICEF) egin berri dituen ikerketek iradokitzen dutenez, HENBK-en Batzordeak adina bermatzeko tresnen testuinguruan proposatutako antzeko printzipioak hartu behar dira. Printzipio horiek honako hauek dira:

- Erabilera proportzionatua eta gardena: adina bermatzeko tresnak, berez sarbide askerako oztopoak direnak, beharrezkoa eta proportzionatua denean bakarrik erabili behar dira. Halaber, haurrentzak gardena den moduan erabili behar dira.
- Sarbidea eta inklusioa: haurren eskubideak online esferan erabiltzean ez da debekurik ezarri behar, frogatutako arriskurik ez badago. Ez da sarrera debekatu behar, hain intrusiboa ez den neurriren bat badago. Aurreko guztia modu inklusiboan eta ez-diskriminatzailean aplikatu behar da.
- Gobernantza: adin-muga (hau da, sarbidea adin jakin batera baldintzatzea) justifikatu egin behar da, kalte potentzialik dagoen eta aukeratutako adin-tarteerako arrazoiak zein diren kontuan hartuta. Nazioartean, koherentzia handiagoa behar da esparru arautzailean, haurren eskubideak babesteko eta betetzeko.

Ikerketa honen arabera, badago agian are nabarmenagoa den beste kontu bat: arriskuen prebentzioaren izenean dauden debeku-neurri zehatzak ez dira jasangarriak. Haurraren eskubideek, izan ere, ez dituzte neurri orokorrak onartzen. Horrek ez gintuzke harritu behar: giza eskubide orokorrak oreka-ahaleginen mende daude. Bada garaia estatuek aitortzen haurren eskubideak giza eskubideak direla eta, beraz, "helduen eskubideek" jasotzen duten oreka arduratsu eta zaindua merezi dutela.

Araudi eta politika proportzionatuak, gardenak, irisgarriak eta integratzaileak egin behar dira haurren online presentziarekin lotutako eremuetan. Adin-murrizketa orokorrak (adibidez, sare sozialak erabiltzean) ez dira inola ere neurri orekatuak. Arriskua arintzea (eta ez prebentzioa) nagusitu behar da haurren eskubideak errespetatzeko eta defendatzeko erabakiak hartzerakoan. Bestalde, Internet eta bere inguruko merkatuak oso desberdinak dira eta oso azkar eboluzionatzen dute; beraz, gurasoek denbora eta zifra argiak behar dituzte erabakiak hartzeko.



LEGEGINTZA ESPARRU NAZIONALA: ESPAINIA

Adingabeek beren datu pertsonalak ingurune digitaletan erabiltzeko baimena emateko gutxieneko adina ezartzean, Espainiak DBEOk zehaztutako adina (16 urte) baino baxuagoa ezarri zuen. Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko 3/2018 Lege Organikoak (DBLO) 7. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, adingabe baten datu pertsonalak tratatzeko haren baimena beharko da, 14 urtetik gorakoa denean soilik. Plataforma eta sare sozial gehienek erabiltzaileen datu pertsonalak kudeatzen dituztenez, muga hori erabiltzaileek zerbitzuan alta emateko ezartzen dutena izaten da. Hala ere, batzuetan plataformek ez dute datu pertsonalik erabiltzen eta, kasu honetan, gutxieneko adina 13 urtekoa izaten da. Bestalde, zenbait kasutan, enpresaren interesagatik, zerbitzuan erregistratzeko 16 urteko gutxieneko adina ezartzen dute. Horrenbestez, plataforma digitalak erabiltzeko 14 urteko gutxieneko adina oinarrizko erreferentzia ohikoena da Espainian, baina ez da derrigorrezkoa eta ez da kasu guztietan aplikatu behar.

Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren aurka Osorik Babesteko Lege Organikoa (HNIOBLO)

2021eko maiatzean onartu zen, eta haren xedea da haurrek eta nerabeek edozein indarkeria-motaren aurrean osotasun fisiko, psikiko eta moralerako dituzten oinarrizko eskubideak bermatzea, haien nortasuna askatasunez gara dadin ziurtatuz eta babes osorako neurriak ezarriz.

Gida honen irismenari eta SAILS proiektuaren filosofiari buruzko funtsezko alderdi batzuk ezartzen ditu:

- Sentsibilizazioko, prebentzioko eta detekzio goiztiarreko neurriak jasotzen ditu, familian, hezkuntzan eta eremu digitaletan, besteak beste. Prebentzioaren ikuspegitik, ingurune seguruak sortzea sustatzen du.
- Tratu onaren printzipioa ezartzen du garapen integrala bermatzeko, haurraren interes gorena kontuan hartuta, haurraren ebaluazioan eta erabakietan parte hartzeko aukera bermatuz eta inolako diskriminaziorik gabe.
- Interpretazio- eta jarduera-irizpide orokorren artean, honako hau dago: “haurrei eta nerabeei eragiten dieten erabaki guztietan parte hartzeko eskubidea bermatzea”.
- Hezkuntzaren eremuan, nahitaezkoa da hezkuntza-arloko asistentzia-koordinatzailearen figura, eta hura izango da erreferentziazko pertsona ikastetxe bakoitzean, indarkeria babesteko eta detektatzeko. Bestalde, eskubide, segurtasun eta erantzukizun digitalari buruzko prestakuntza indartuko da ikasleen artean, hezkuntza-etapa guztietan Interneten erabilera egokia sustatzeko.
- Familia-eremuan, Lege honek gurasotasun positiboa oinarrizko prebentzio-ekintza gisa ezartzen du.
- Eremu digitaletan, neurri-sorta oso zabala da, lankidetzaren publiko-pribatua sustatzetik hasi eta familiei laguntzera arte. Neurri horien artean, “guraso-kontrolerako eta salaketa eta blokeorako mekanismoak ezartzea eta erabiltzea” sustatuko da, bai eta hezkuntza digitalerako eskubidea sustatzea ere.

Eskubide Digitalen Gutuna

Espainiako Gobernuak 2021ean onartutako Eskubide Digitalen Gutunaren helburua ez da oinarrizko eskubide berriak sortzea, baizik eta ingurun eta espazio digitaletako eskubide garrantzitsuenak zehaztea edo horien eskubide instrumentalak edo osagarriak deskribatzea. Beraz, ez da arauemailea, eta helburu hirukoitza du: deskriptiboa, prospektiboa eta asertiboa.

- Deskriptiboa, beti egon diren baina beste haztapan bat behar duten eskubide, balio eta ondasunen arteko gatazkak –batzuetan ustekabekoak– eragiten dituzten testuinguru eta agertoki digitalak deskribatzen baititu; deskribapen soil horrek ingurune eta espazio digitalen inpaktua eta ondorioak ikusten eta kontuan hartzen laguntzen du.
- Prospektiboa, aurreikus daitezkeen etorkizuneko agertokiei aurrea hartzeko.
- Asertiboa, oinarrizko eskubideen kulturatik bertatik oraingo eta etorkizuneko ingurune eta espazio digitaletan aplikatu behar diren printzipio, teknika eta politikak berresteko eta legitimatzeko.

6 eskubide-kategoria nagusi proposatzen ditu: askatasuna, berdintasuna, espazio publikoaren partaidetza eta konfigurazioa, lan- eta enpresa-ingurunea, eskubide digitalak ingurune espezifikoetan, eta bermeak eta eraginkortasunak.

Berdintasunaren kategorian, SAILSen ondorioetarako, “Internetera sartzeko eskubidea” eta “Adingabeen babesa ingurune digitalean” nabarmentzen dira. Parte-hartzearen kategorian, “Hezkuntza digitalerako eskubidea” eta “Herritarrek bitarteko digitalen bidez parte hartzeko eskubidea” nabarmendu behar dira. media” should be featured

**GURASOENTZAKO
KANPO BALIABIDEAK**

Familientzako webgune eta erakunde espezializatu erabilgarriak

Familientzako webgune erabilgarriak eta erakunde espezializatuak

Zorionez, doako online erakunde eta baliabide asko daude, hazkuntza digitala modu positiboan eta proaktiboan bideratzen lagun dezaketenak. Zeregin horretan nolabait inplikaturako erakundeen zerrenda hain luzea denez, soilik horretaz arduratzen diren erakunde espainiarrak eskaintzera mugatuko gara. Edukia ere ez dugu deskribatuko, espezializatua eta zabala izateaz gain, oso dinamikoa baita. Gutxienez 2018a baino lehenagoko ibilbidea duten honako hauek aipa ditzakegu:

<https://www.pantallasamigas.net>

<https://www.is4k.es>

<https://www.empantallados.com>

<https://www.gaptain.com>

Orotariko erakunde-baliabideak diren baina lan handia egiten duten honako hauek ere nabarmendu behar dira:

- Datuak Babesteko Espainiako Agentzia. <https://www.aepd.es/es>

- Internautaren Segurtasun Bulegoa. <https://www.osi.es/es>

Azkenik, bideojokoen esparruan oso ikuspegi positiboa dauka honako honek:

- Bideojokoen Espainiako Elkarteko jokalaria ona. <https://www.thegoodgamer.es/>

SAILS ZURE SEME-ALABEN ESKOLAN - SIMULATUTAKO SARE SOZIALA

Online komunitateek berebiziko garrantzia izan dute Interneten garapenean, hasiera-hasieratik. Gaur egun, posta elektronikoa online komunikatzeko modu nagusi gisa gainditzeaz gain, mota guztietako komunikazio-beharrak asetzen saiatzen dira, hala nola mikrointerakzioak (hau da, presentzia edo “Atsegin dut”, “+1” edo boto gisako balorazioak) eta denbora errealeko bideokonferentziak. Hala ere, komunikabide sozialen inguruan sortzen diren komunikazio-eszenatoki asko hain dira berritzaileak, ezen batzuetan ez baitira aintzat hartzen haien erabileraren ondorioak. Lan handia dago egiteko arlo horretan pribatutasunari, segurtasunari eta konfiantzari dagokienez. Sare sozialetako aplikazioen erabileratik sortzen diren agertoki berri horiei aurre egiteko bezain sendoak diren alfabetatze digitaleko trebetasunak garatzeko, beharrezkoa da, ezagutza tekniko sendoak ez ezik, esperientzia praktikoa handia izatea.


Pribatutasunari buruzko tailer zorrotzak diseinatzea ez da lan erraza hainbat arrazoirengatik. Lehenik eta behin, online pribatutasuna soziala izatearen kontraketatik hartzen da, eta, beraz, erabiltzaileak sare sozialetan duen esperientzia ahultzen du. Erabiltzailearen pribatutasuna babesteko neurri guztiek erabilgarritasuna galtzea dakarte sare sozial horietan, eta erabiltzaileei aspergarri edo gogaikarriak iruditzen zaizkie. Bigarrenik, pribatutasunari buruzko ikaskuntza-materialak, ikuspegi ludiko batetik diseinatutakoak, haurrek edo nerabeek erabiltzeko pentsatuta egoten dira. Hala ere, adin-talde horiek ez dira pribatutasunari buruzko ezagutzarik ez duten bakarrak; izan ere, erabiltzaile zaharrenek –adibidez, irakasleek– antzeko arazoei egin behar diete aurre, eta deseroso senti daitezke haurrei zuzendutako materialekin ikasten.

Arrazoi horiengatik, SAILS programan parte hartzen duten ikastetxeei jolas sozial interaktibo bat eskaintzen zaie, non jokalariek beren trebetasun sozialak online gara ditzaketen lehen pertsonako ikuspegi batetik. Instagramen antzeko tailerra da Instalab, aurretik garatutako online pribatutasunari buruzkoa. Berrikuntza nagusi bat du: ikasgai interaktiboan eta aukera anitzeko galderen multzo estandarretik haratago doa, sare sozialak erabiltzeko jardunbide onenen arloan: Instalab-ek ingeniarietza sozialeko gerra-joko bat eskaintzen du hareazko kutxa baten moduan funtzionatzen duen sare sozial faltsu batean.

Ingeniarietza soziala –segurtasun fisikoaren testuinguruan– pertsonak manipulatzeko diseinatutako teknika-multzo bat da, pertsona horiek zeinbat ekintza egin ditzaten edo informazio konfidentziala eman dezaten. Pirata informatikoen eta cracker-ek ingeniarietza sozialeko teknikak baliatzen dituzte teknologikoki ondo babestuta dauden sistemetara sartzeko (adibidez, suebakiak edo segurtasun perimetraleko beste soluzio batzuk gainditzeko). Maila ez hain teknikoan, ezezagunek edo jazarleek erabil dezakete ingeniarietza soziala biktima baten informazio pribatua eskuratzeko. Wargame bat –testuinguru honetan– segurtasun-erronka bat da. Bertan, jokalariek beren trebetasunak erabili behar dituzte sistema baten ahultasunak ustiatzeko, bertara sartze aldera. Wargameek zerbitzari faltsuak ematen dituzte, gero eta zailtasun handiagoko maila batzuetan eraso beharrekoak, pirateria informatikoaren aurkako defentsari buruzko ikaskuntza-prozesua errazteko (adibidez, Hackerslab).

Era berean, Instalabek ingeniarietza sozial automatizatuko wargame bat eskaintzen du, profil sozial faltsuekin (Instalab-en “bots sozialak” ere esaten zaie), jokalariekin elkarreraginean. Bots sozial horiekin lotutako profiletako informazio guztia fikziozkoa da, eta, beraz, Instalab-en jokatzen denean ez da pertsona erreal baten pribatutasuna urratzen. Instalab-en erronketan zehar, jokalariek ingeniarietza sozialeko teknikak hobetu beharko dituzte horiek konpontzeko. Hala, hacking etikoari buruzko prestakuntza-ikastaroetan gertatzen den bezala, pribatutasunarekin lotutako wargame honekin jolastu ondoren, jokalaria horientzat errazagoa izango da asmo txarreko egoerak antzematea, hau da, sare sozialetako aplikazioetan horrelako teknikak erabili nahi dituzten asmo txarreko egoerak identifikatzea.

Xehetasun handiagoz ezagutu nahi baduzu, zure seme-alaben irakasleari eskatu sarbidea eman diezazula barrutik ikusi ahal izateko. Era berean, modu segurua da zuk eta zure seme-alabek komunikazioa sare sozial baten esparruan baina ingurune babestu batean praktikatzeko.



GURASOENTZAKO IRAKURKETA OSAGARRIAK

Zerrenda hau azken urteetan zehar bildu da. Gaur egun seme-alabak hezten dituzten gurasoentzat material interesgarria eskaintzen du. Gehienak ez dira berariaz digitalizazioari buruzkoak, baina gaurko eta biharko errealitateetan nabigatzen laguntzen dute.

AUTHOR	TITLE
Adam M. Grant	Originals: How Non-Conformists Move the World
Alicia Blum-Ross, Sonia Livingstone	Parenting for a Digital Future: How Hopes and Fears about Technology Shape Children's Lives
Alison Gopnik	The Gardener and the Carpenter: What the New Science of Child Development Tells Us About the Relationship Between Parents and Children
Bruce D. Perry	The Boy Who Was Raised as a Dog: And Other Stories from a Child Psychiatrist's Notebook -- What Traumatized Children Can Teach Us About Loss, Love, and Healing
Chris Clearfield, András Tilcsik	Meltdown: What Plane Crashes, Oil Spills, and Dumb Business Decisions Can Teach Us about How to Succeed at Work and at Home
Daniel Kahneman	Thinking Fast and Slow
David Epstein	Range: Why Generalists Triumph in a Specialized World
Deborah Feldman	Unorthodox: The Scandalous Rejection of My Hasidic Roots
Dr Elizabeth Milovidov, JD, Council of Europe	PARENTING IN THE DIGITAL AGE Positive parenting strategies for different scenarios
Elif Shafak	How to Stay Sane in an Age of Division
Erica Reischer	What Great Parents Do: 75 Proven Strategies for Raising Fantastic Kids
Frank J. Sulloway	Born to Rebel: Birth Order, Family Dynamics and Creative Lives
Fredrik Backman	Things My Son Needs to Know About the World
Howard Gardner	Frames of Mind: The Theory of Multiple Intelligences
Jesper Juul	Leitwölfe sein Liebevöller Führung in der Familie
Jordan B. Peterson	12 Rules for Life: An Antidote to Chaos
Joshua D. Greene	Moral Tribes: Emotion, Reason, and the Gap Between Us and Them
Ken Robinson	You, Your Child, and School
Margot Machol Bisnow	Raising an Entrepreneur: 10 Rules for Nurturing Risk Takers, Problem Solvers, and Change Makers
Manlyn Price-Mitchell	Tomorrow's Change Makers: Reclaiming the Power of Citizenship for a New Generation
Pasi Sahlberg, William Doyle	Let the Children Play: How More Play Will Save Our Schools and Help Children Thrive
Richard H. Thaler, Cass R. Sunstein	Nudge: Improving Decisions About Health, Wealth, and Happiness
Rutger Bregman	Humankind: A Hopeful History
Rutger Bregman	Utopia for Realists: And How We Can Get There
Tara Westover	Educated
Wendy Mogel	The Blessing of a Skinned Knee: Using Jewish Teachings to Raise Self-Reliant Children

**1. ERANSKINA:
GURASOENTZAKO
AUTOEBALUAZIO-
TRESNA, ARO
DIGITALEAN GURASO
MODUAN DITUZTEN
PRAKTIKEI BURUZ**

1. ZATIA: AZTERTU ZURE HAZKUNTZA DIGITALA: EBALUATU ZURE HAZKUNTZA-ESTILOA ETA -JARRERA

Atal honetan ez dago erantzun zuzen edo okerrik. Azken galderaren ostean, hazkuntzan baliatzen ari zaren ikuspegi nagusia identifikatu ahalko duzu. Arlo digitalean, hazkuntza onaren esparrua oso zabala da. Garrantzitsua da gurasoek beren eguneroko hazkuntza-praktikak kontzienteki garatzea, beraientzat eroso den ikuspegiaren arabera. Mugabakarra dago: ezin dituzu zure seme-alabak edo haien eskubideak kaltetu. Hori aztertzeko, 2. zatira pasatuko zara. Bertan, kontuan hartu beharreko mugak azaltzen dira.

1. galdera

Zuretzat zer da haurren gaineko diziplina?

A. Guztiz beharrezkoa da. Hazkuntza on baterako alderdirik garrantzitsuenetakoa da. Haurrek jakin beharra daukate nork agintzen duen; bestela, infernua izan daiteke. Ondorioz, diziplina zorrotza eta sendoa guztiz ezinbestekoa da, haur gaizki haziak, nagiak eta errebeldeak saihesteko; hau da, errespetuaren, lan gogorraren eta bizitzan aurrera egiteko moduaren esanahia ezagutzen ez duten umeak ekiditeko.

C. Derrigorra da oso zorrotza ez baina irmoa izatea! Maitasuna oso garrantzitsua da, baina diziplinarik ez egoteak ez die gure seme-alabei inolako mesederik egiten; kontrara, nahastu egiten ditu, lagundu beharrean. Nire seme-alabek ikasi beharra dute mundua ez dagoela beren esanetara, ezin dutela beti nahi dutena lortu, jarraitu beharreko arauak daudela, eta bizitzan eskubideak eta akatsak daudela.

B. Ez da bat ere erabilgarria. Zaharkitua eta kaltegarria da. Nire ustez, haurren gaineko diziplinaren kontzeptua muga bat da nire seme-alaben garapen emozionalerako eta, beraz, mugatu egiten ditu beren askatasuna, berezko jakin-mina eta pentsamendu sortzailea.

D. Ikuspegi okerra! Nik, berez, ez dut haurren gaineko diziplina ona edo txarra bezalako kontzepturik erabiltzen. Nire ustez, hazkuntza nire umearekin lan egitea da, harekin bat egitea eta une horretan behar duena antzematea, betiere epe luzeko nire helburua ahaztu gabe. Batzuetan arauak eta mugak beharrezkoak dira; beste batzuetan ez. Batzuetan esku hartu beharra daukat; batzuetan nire senari entzun behar diot eta atzera egin. Egoera bakoitzak erantzun ezberdina behar du.



2. galdera

Zer esanahi nahi dute zuretzat errespetua eta autoritatea kontzeptuek?

B. Ez dut autoritatean, hierarkian eta mendekotasunean sinesten. Autoritatez aritzean seme-alabak itoazten ditugu, eta mundua askatasunez aztertzeko aukera mugatzen diegu. Ez dut behar nire seme-alabek errespetu nazaten. Nire seme-alabak zoriontsuak izatea eta beren gaitasun guztiakin bizitzea baino ez dut behar, nire autoritate mugatzailerik, baldintzatutako sinesmenik eta etengabeko gainbegiradarik gabe.

A. Errespetua eta autoritatea hazkuntzan oso garrantzitsuak dira. Heziketa onekoak diren eta beren gurasoak begirunez tratatzen dituzten umeak hazteko, gurasoek autoritate eztabaidea ezin eduki behar dugu. Nire seme-alaben errespetua lortzeko, zilegi da haserretzea kasurik egiten ez didatenean. Zigortu egin ditzaket txarto portatzen direnean. Nire seme-alabak gaiztoak edo zakarrak direnean haserretzen ez banaiz edo zigorrik jartzen ez badiet, ez dituzte sekula ikasiko beren ekintzen benetako ondorioak.

C. Errespetu eta autoritate apur bat edukitzea beharrezkoa iruditzen zait ez soilik nire seme-alabak seguru sentitzeko, baizik eta familia guztiak unitate orekatu gisa funtzionatzeko. Ume batek jakin beharra dauka ni beti hemen nagoela, eztabaidatzeko prest, baina ez dudala errespetu-faltarik, zakarkeriarik edo desobedientziarik onartuko. Beraz, guraso adeitsua eta sentikorra naizela uste dut, baina horrek ez du esan nahi ez dudarik autoritatea nire seme-alabak zigortzeko, hartara bere ekintzen ondorioak ikas ditzaten.

D. Ez dut autoritate bat izan nahi. Nahiago dut nire seme-alabentzako eredu inspiratzailea izatea, autoritatea baino. Niretzat, jarrera-ereduaren eta autoritatearen artean aldea dago: autoritatea beldurratetik jardun eta obeditzean datza, eta, aldiz, jarrera-ereduak zerikusit handiagoa dauka inspirazioarekin eta ondo sentiarazten zaituen zerbaiten alde lan egitearekin. Ez dut arau eta eskakizunen bidez errespetu nazaten eskatzen. Aitzitik, errespetua irakasten diet nire umeei, horixe delako (besteak beste) beraiek sentitzea, ikastea, eta, azken finean, edukitzea nahi dudana ezaugarria. Filosofia hau jarraitzen dut: erakutsi errespetua zure seme-alabei eta haiek errespetuz tratatuko zaituzte.

3. galdera

Zelan kudeatzen dira gatazkak?

A. Ez ditut jarrera desagokiak onartzen. Argi daukat: nire etxean ez dut halakorik onartuko. Ondorioz, gogor zigortzen ditut desobedientzia zakarra eta kasketaldi heldugabeak. Umeek jakin beharra daukate zein den beren lekua, behartuta bada ere. Horregatik, gatazkak konpontzeko haserretu egin naiteke, edo zigorrak baliatu, batzuetan horixe delako umeek benetan ulertzen duten hizkuntza bakarra.

B. Lehenik eta behin, ez dut uste gatazkek inori mesede egiten diotenik. Eta, egiari zor, gatazkek beldur apur bat ematen didate. Gainera, gatazkak ez zaizkit beharrezkoak iruditzen: saihestu egin daitezkeela uste dut. Nire seme-alabekin gatazkak sortzen direnean, giroa baretzen eta nire seme-alaben arreta beste norabait desbideratzen saiatzen naiz, zoriontsu egiten dituen lekuren batera.

D. Gatazkak, kasketaldiak eta eztabaidak frustrazioaren zantzuak baino ez dira; sarritan, bete gabe dagoen behar baten emaitza dira. Horregatik, nire seme-alaba haserre badago, oldarkortasun edo haserre horrekin ez erantzuten saiatzen naiz. Bi pertsonak garrasika ez dute ezer konpontzen. Beraz, lasai egoten saiatzen naiz, nire umearen jarreraren atzean zein behar dauden deskubritzeko. Eta, ahal badut, behar hori asetzen dut. Bestela, nire esku dagoen guztia egiten dut entzuteko eta ulertzeko prest nagoela jakin dezan. Horrek beti laguntzen du bestea lasaitzen eta sendatzen.

C. Gatazkak saihestezinak dira, eta umeek beti jartzen dizkiet probak beren gurasoei; beti saiatzen dira mugak gainditzen. Halakoetan, ulertzen ditugula sentitu behar dute, baina, era berean, mugak daudela jakin behar dute. Seguru sentitu daitezen, jakin beharra dute norik agintzen duen. Ondorioz, nire seme-alabei entzungo diet esan nahi duten hori, baina nire hitza ez da aldatuko. Hau da, beharrezkoa bada oihukatu egiten dut eta beharrezkoa bada zigortu egiten dut.

4. galdera

Zelan kontrolatzen dituzu zure seme-alabak?

D. Orokorrean, nire seme-alabak ez kontrolatzen saiatzen naiz. Nire ustez haurra haserre, mehatxu eta zigorrekin edo ordainsari, eroskeria eta laudorioekin kontrolatzea gatazkatsua da, haurrak “bortizki behartu” edo “manipulazioaren bidez engainatzen” direlako gurasoek nahi dutena egin dezaten. Aipatutako kontrol-mekanismo guztiek aprobetxatu egiten dute gure seme-alabak gure maitasunaren, arretaren eta aitortzaren menpe daudela. Kontrol-tresnen ondorioz, gure seme-alabek onartuak izateko lan egiten dute. Eta maitasuna eta onarpena ez dira irabazi behar; berez egon beharko lukete.

B. Ez dut sinesten nire seme-alabenganako kontrol ireki eta zuzenean eta, beraz, ez dut halakorik erabiltzen. Kontrola oztopo bat da haurren hazkuntza eta garapen askerako. Gainera, ez ditut nire umeak triste ikusi nahi. Horregatik, nire seme-alabek nik nahi dudana egin dezaten, nahiago ditut laudorioak eta sariak. Nahiago dut irribarre sano eta zoriontsu bat, aurpegi triste bat baino.

C. Diziiplina bezala, zure seme-alabak kontrolatzea beharrezkoa da, behintzat neurri bateraino. Kontrola eta diziiplina beharrezkoak dira gure seme-alabei sozialki arduratsuak izaten eta besteengatik arduratzen irakasteko. Umeek nahi dutena egin dezaketela uste badute, etorkizunean zelan egingo diete aurre gizartearen eskakizunei? Kontrol-tresna gisa, nahiago ditut arrazionaltasunaren tresnak. Hau da, nire seme-alabei arauen eta eskakizunen atzean dagoen logika azaltzen diet, arauok zergatik bete behar dituzten uler dezaten.

A. Autoritatez arituz. Nire seme-alabei nik agintzen dudala ikusaraziz. Nire seme-alaben eta beren jarreraren gainean itxaropen oso altuak ditut, eta itxaropen horiek bete eta kasu egin diezadaten, errespetatu egin behar naute. Beldur apur bat izan behar didate. Beraz, hazkuntza-teknika batzuk eraginkorragoak dira nire umeak kontrolatzeko; esaterako, desobedientziaren ondorioetarako mehatxuak edo zakarkerien ondoriozko zigorrak.

5. galdera

Zer iruditzen zaizkizu arauak?

B. Arauak ez dira beharrezkoak. Gainera, nire seme-alabak inozo bihurtzen dituzte, eta beren garapen emozional, mental eta psikologikoa eragozten dute. Arauek nire seme-alaben askatasuna ezabatu eta hazkuntza pertsonala mugatzen dute.

D. Ez dut arauetan irmotasunez sinesten, baina batzuetan beharrezkoak dira. Adibidez, nire seme-alabek trafiko-arauak ikasi behar dituzte: gorri badago, geratu egin behar da. Ez dago eztabaidarik. Gainerakoan, Perspektiba Handiaren betaurrekoak jartzen ditut, egoera zehatz batean zer behar den antzemateko. Nire senaz baliatzen naiz arauak beharrezkoak direnez jakiteko. Esan beharrean: “Ezin duzu hau edo hori egin”, nahiago dut beren ekintzen ondorioak erakutsi eta egin duten horrek dituen eraginak azaldu. Hala, nire barruko balioak helarazten dizkiet, beren buruetan zuri-beltzeko arau zorrotz batzuk grabatu orde.

C. Printzipioz, arauak egon behar dira. Nire seme-alabek ikasi egin behar dute askatasun pertsonalak mugak dituela eta ezin dutela beti nahi dutena egin. Horretarako, lankidetzaren, erantzukizunaren eta betebeharraren zentzua helarazteko, garrantzitsua iruditzen zait, esaterako, etxean lanean jartzea.

A. Arauak guztiz beharrezkoak dira. Arau askorik eta baldintza zorrotzik gabe, dena kaosa litzateke eta, beraz, nire seme-alabak kontrola ezinak eta arduragabeak lirateke. Arauak nolabait beharrezkoak dira nire lasaitasunerako eta umeen barruko izaera basatia kontrolpean izateko..

6. galdera

Zelan irakasten dizkiezu balioak zure seme-alabei?

D. Nire seme-alabei balioak irakasten saiatzen naiz, nire jokabidearen bidez, nola jokatzeari nahi dudana predikatu beharrean. Bestela esanda, errespetua, ulermena eta begirunea irakasten dizkiet, ni neu izanda. Uste dut haurrek hobeto ikasten dutela baldintzarik gabeko maitasunaren eta adibide zehatzen bidez. Beraz, balio onak erakusten saiatzen naiz haiekin harremanetan egoteko dudana moduaren bidez. Laguntzearen poza ulertzea nahi badut, nire seme-alabari laguntzen diot behar duenean. Nire ekintzekin irakastea askoz ahaltsuagoa da nire hitzekin predikatzea baino.

C. Nire seme-alabei balio onak irakasten dizkiet, bai esaten dudanaren bidez, bai nire eskakizun eta arauen bidez. Adibidez, nire seme-alabak gizaki arduratsu bihurtzeko daitezela, ondo portatzen ikasi behar dute, eta horrek zenbait jokabide-arau egoki eskatzen ditu, hala nola galderei adeitasunez erantzutea, etxean laguntzea, norberaren gela garbitzea, etab.

B. Nire seme-alabei mundua libreki esploratzen uzten diet, beren balioak aurki ditzaten. Beren egiak aurkitzea nahi dut. Ez dizkiet neure ideia eta sinesmenak ezarri nahi.

A. Lehenik eta behin, nire seme-alabei esaten diet zein balio on eta zintzo bete behar dituzten. Baina batzuetan diziplina zorrotza behar izaten da esan nahi dudana benetan uler dezaten. Batzuetan haurrek gauzak derrigorrean ikasi behar dituzte. Nire seme-alabak zigortzen ditudanean, beren onerako da. Bestela, nola ikasiko lukete zer dagoen ondo eta zer gaizki?

7. galdera

Zein dira zure etorkizuneko helburuak zure seme-alabentzat?

C. Nire seme-alabak zoriontsuak izatea nahi dut. Beraiek zoriontsuak badira, ni zoriontsua naiz. Atsegin duten lana eta maite duten bikotekide on bat aurkitzea nahi dut.

Barrutik nor diren jakin dezaten nahi dut, beren onena eman diezaieten inguruan dituzten pertsonen.

A. Nire seme-alabak indartsuak, independenteak eta garaileak izatea nahi dut. Beren erresistentzia gara dezaten nahi dut, gogor lan egin dezaten hezkuntza ona lortzeko, eta, hala, lan ona eskuratu eta herritar on bihurtzeko. Nitaz harro sentitzea nahi dut.

D. Nire seme-alabek benetako zoriona eta baldintzarik gabeko maitasuna ezagutzea eta bizitzea nahi dut. Nahi dut ezagutu eta erabili dezaten baldintzarik gabeko maitasunaren, irekitasunaren eta erabateko onarpenaren boterea. Botere hori benetan ezagutzen dutenean, joaten utzi ahal izango diet, bizitza oso oparoa bizi dezaten.

B. Nire seme-alabak gizaki aske bihurtzea nahi dut. Beren gaitasunak aztertzen jarrai dezaten nahi dut, beren ahalmen guztia garatu ahal izan dezaten.

8. galdera

Zer zara zu zure seme-alabentzat?

B. Nire seme-alaben laguna naizela uste dut, beraien parekoa. Hierarkia lauaren boterean sinesten dut, eta nire seme-alabek beti nigana jo dezaketela sentitzea nahi dut.

A. Nolabaiteko zaindari morala naizela uste dut. Guraso naizen aldetik, nire eginbeharra da nire seme-alabek ongiaren eta gaizkiaren, zuzenaren eta okerraren arteko aldea ikasten dutela ziurtatzea.

D. Bizitzan eta kontzientzian gidari moduko bat naizela uste dut, eta baldintzarik gabeko maitasun iturri bat. Saiatzen naiz beti begi bat epe luzerako perspektibarako zabalik edukitzen, eta nire seme-alabak behar dutenera gidatzen, harik eta beraien beren buruaren agintea hartu eta beren gidari bihurtzen diren arte.

C. Maitekorra, beroa eta adiskidetsua naiz nire seme-alabekin, baina ez naiz haien laguna. Beraien gurasoa naiz, autoritate bat. Seme-alabei ikusarazten diet maite ditudala gertatzen dena gertatzen dela, baina gogorra ere izan naitekeela behar izanez gero.

9. galdera

Zer dira emozioak?

C. Oro har, emozioak ondo daude eta gogo onez onartzen ditut. Hala ere, ez dut errespetu faltaren adierazpen zuzenik onartzen, nire seme-alabek oihu egitea bezala. Emozio-erakustaldi hori onartezina da eta haserretu egiten nau.

B. Ez zaizkit emozio negatiboak gustatzen. Egia esan, emozio indartsuek beldur pixka bat eman dezakete. Ahal dudana egiten saiitzen naiz nire seme-alaben emozioekin topo ez egiteko. Horrek esan nahi du nire seme-alabek askotan nahi dutena egiten dutela.

A. Uste dut emozioak erakustea ahuleziaren seinale izaten dela. Nire seme-alabak pertsona indartsuak izan daitezen, beren emozioak kontrolatzen ikasi behar dute; ezin dute emozioez gidatu. Beren emozioak gehiegi erakusten badituzte, zaurgarriak izango dira eta beste pertsona batzuk beraietaz aprobe txatu ahal izango dira.

D. Nire seme-alaben emozioak behar asegabe baten ondorio izan ohi dira (arreta-beharra, autonomia, lotura afektiboa, baita lo egitea bezain oinarrizkoa den zerbaiten ondorio ere). Emozioak izan ohi dira nire seme-alabek duten modu bakarra beren premia asegaitzak adierazteko, eta, beraz, saiitzen naiz ez haserretzen eta ez "zigortzen" sentitzen diren bezala sentitzeagatik.

10. galdera

Zeintzuk dira zure hazkuntza-tresna garrantzitsuenak?

A. Nire balio sendoak, “zuzena denaren” ezagutza eta judizio moralaren gaineko zentzu altua. Itxaropen oso handiak ditut nire seme-alabentzat, eta bete egin behar dira, heldutan ondo joan dakien. Nire seme-alabek ikasteko eta hazteko, jakin behar dute noiz ari diren huts egiten eta, beraz, noiz saiatu behar duten gehiago.

D. Nire baldintzarik gabeko maitasuna eta laguntza, nire sena eta epe luzerako ikuspegia. Saiatzen naiz nire seme-alabak ez epaitzen eta arau zurrun eta ideia herriko menderatzaileak ez betetzen. Aitzitik, beti ulerkorra izaten eta beti gogamena zabalik edukitzen saiatzen naiz.

C. Nire buru arrazionala, nire giza balio onak eta guraso-maitasuna. Nire seme-alabak biziki maite ditut, baina horrek ez du esan nahi aske direnik nahi dutena egiteko. Eztabaidetara irekita nago eta logikaren eta zentzuaren tresnak erabiltzen ditut nire ikuspuntuak defendatzen ditudanean.

B. Nire buru tolerante eta malgua, nire berotasunarekin eta maitasunarekin batera. Ez dut nahi nire seme-alabak mugatuak edo hertsatuak sentitzea. Beraz, nahi dutena egiten utziko dien soka luze samar bat mantentzen saiatzen naiz... gehienetan!

Amaitu da?

Orain, zure bikain, oso ondo, ondo eta negatiboak kontatzeko garaia da, hartara zure hazkuntza-estiloa ezagutzeko.

Testaren emaitzak irakurtzen jarraitu baino lehen, kontuan izan gutako gehienok ez dugula beti hazkuntza-estilo bakar baten arabera jarduten eta pentsatzen.

Ez gara estatikoak. Sarritan aldatu egiten gara egoeren arabera, gure seme-alaben aldarteren arabera eta geure aldarteren arabera.

Horregatik, litekeena da zure erantzunak % 100ean koherenteak ez izatea (hau da, mota bakarrekoak ez izatea).

Hala ere, litekeena da nahiko modu iraunkorrean agertzen den letra bat izatea, eta beste letrak, berriz, noizean behin agertzea.

Aldi berean, garrantzitsua da hazkuntza-estilo horiekin guztiekin lotutako onurak eta arrisku potentzialak daudela ulertzea. Izan ere, horien jakitun izan behar duzu zure seme-alabaren mesedetan arituko bazara.

Jarrai dezagun zure emaitzari buruz irakurtzen.



Erantzun gehienak A badira...

Zure hazkuntza-estiloak, ziurrenik, hazkuntza autoritarioaren ezaugarri bereizgarriak izango ditu. Jarraitu irakurtzen eta deskubritu hazkuntza autoritarioari buruzko gauza gehiago.

Nortasunaren, balioen eta estrategien ezaugarri hauek dira guraso autoritarioen bereizgarri:

- Ideia oso irmoak eta finkoak dituzte ondo eta gaizki dagoenari, eta ona eta txarra denari buruz, bai politikan, bai pertsonengan, bai seme-alaben hezkuntzari buruzko iritzietan.
- Pertsonak beren gaitasunen arabera epaitzea eta neurtzea gustuko izaten dute. Pertsona batzuk idealizatzeko eta beste batzuk porrot egin dutela pentsatzeko joera dute.
- Egitura, ordena eta aurreikusgarritasuna oso garrantzitsuak dira. Familian hierarkia sozial eztabaidaezina dago: goian daudenek, gurasoek, obedituak izateko autoritate osoa dute.
- Arau asko nahitaez bete behar dira. Haurrak ez dira animatzen arauak zalantzan jartzera, ezta iritzi indibidualak izatera ere. Beraz, gauzak ez dira eztabaidatzen.
- Haurren portaeratik, errendimendutik eta lorpenetatik asko espero da. Haur bat gaizki portatzen bada edo kasketaldi bat badu, berehala geldituko da eta gaizki portatzeagatik zigortuko da.
- Ez zaie gustatzen inolako emozioak erakustea. Emozio guztiak arriskutsuak izan daitezke. Bihozgabea irudi dezakete, samurtasuna eta afektua erakustea alferrekoa eta ahuleziaren seinale dela uste baitute.
- Ezin dituzte beti emozio horiek guztiak kontrolpean eduki, eta, beraz, erraz erretzen den metxa emozional labur batekin borrokatzen dute.
- Zigortzeko hainbat modu erabiltzen dituzte haurrak beren eskakizun handien mailan ez badaude. Zigorrak mehatxuak, erruduntasuna (haurrak beren buruarekin gaizki sentiaraztea) eta zigor fisikoak izan daitezke.
- Beren haurrak maite dituzte, baina etsai gisa ere ikusten dituzte, eta horiek kontrolpean izan behar dituzte; bestela, dena inbadituko eta bereganatuko dute.

Kasu gehienetan, ideia ona izan daiteke arauak ezartzean seme-alabari entzutea. Lehenetasuna izango da arau horiek betetzea, eta, beraz, ideia ona izan daiteke lehendabizi araua elkarrekin ezartzea. Gogoratu behar duzu, erabilera digitalean zure seme-alaba gehiegi murrizten baduzu, oso litekeena dela prebenitu nahi diozun guztiaren esposiziopean jarraitzea, baina zuk jakin gabe. Zure seme-alabengan konfiantza gehiago izateko entrenatzeko saiakera egin dezakezu.



Erantzun gehienak B badira...

Zure hazkuntza-estiloak, ziurrenik, hazkuntza permisiboaren ezaugarri bereizgarriak izango ditu. Guraso-estiloaren test honek hazkuntza permisiboa dei litekeenera jotzen du? Jarraitu irakurtzen, ezaugarriak ezagutzen dituzun ikusteko.

Nortasunaren, balioen eta estrategien ezaugarri hauek dira guraso permisiboaren bereizgarri:

- Guraso maitekorrak, adeitsuak eta beroak dira eta, ahal den neurria, hori frogatzen saiatzen dira.
- Arreta handia jartzen dute haurren ongizate emozionalerako eta garapenerako baldintzak optimizatzen.
- Etxean arau gutxi dituzte eta portaera ez da oso zorrotza. Ahalegintzen dira murriztaileak ez izaten. Arauak, oro har, mugatzailetzat hartzen dira hazkunde pertsonalerako eta garapen askerako.
- Oso garrantzitsutzat jotzen dute norbanakoaren autonomia babestea eta sormen-adierazpenetarako lekua uztea.
- Familia-hierarkia laua dute, ez dituzte haurrak argi eta garbi kontrolatzen eta autoerregulazioaren boterean sinesten dute.
- Lehentasuna ematen diete familiaren harmoniari eta bakeari, nahiz eta horrek sakrifizioa ekarri (seme-alaben nahiei amore ematea edo obeditzea).
- Seme-alaben gaineko zeharkako nolabaiteko kontrola lortzen saiatzen dira, hainbat manipulazio-moduren bidez: eroskeria, sariak edo laudorioak.

Kasu gehienetan guraso horietako bat bazara, zure seme-alabei galdetu ea seguru eta eroso sentitzen diren uneoro. Hurrei egitura eta arauak gustatzen zaizkie, zeri lotu jakiteko. Nerabeek itxuraz hazkuntza permisiboa erakargarri aurkitu dezaketen arren, oraindik ere erreferentzia-puntu bat behar dute matxinatzeko. Haur txikienezat, erreferentzia-puntu horiek euskarri segurua dira online munduaren konplexutasun handia aztertzen duten bitartean.



Erantzun gehienak C badira...

Zure guraso-estiloak, ziurrenik, guraso autoritarioaren ezaugarri bereizgarriak izango ditu. Jarraitu irakurtzen zure hazkuntza-estiloari buruz gehiago jakiteko.

Nortasunaren, balioen eta estrategien ezaugarri hauek dira guraso autoritatiboen bereizgarri:

- Maitagarriak, harkorrak eta beroak dira, eta hor egoten eta haurren beharrak asetzen ahalegintzen dira.
- Nahiko itxaropen handiak dituzte portaera egokiari buruz. Etxeko arauak bete behar dituzte, baina lekua uzten dute haurrak bere interesak jarrai ditzan ezarritako esparruaren barruan.
- Haurrek beren iritzia izan ditzaten baimentzen da eta horiek adieraztera animatzen dira, baina gurasoek beti dute azken hitza. Haurrek badakite eta onartu egin behar dute.
- Garrantzitsua da gatazketan irisgarri, irmo eta hautsiezin agertzea. Entzun haurrari, baina ez amore eman. Ez da onargarria eztabaida batean “galtzea” edo borroka batean atzera egitea.
- Indibidualtasuna sustatzen da, baina EZ sozialtasunaren kontura. Horrek esan nahi du haurrak bere borondate indibidualaren arabera joka dezakeela, betiere egitura soziala arriskuan jartzen ez badu eta arau konbentzionalen aurka ez badoa.
- Gurasoen kontrola beharrezkoa da, eta hitzezko arrazoiaren, logika mentalaren eta, beharrezkoa bada, indar fisikoaren bidez gauzatzen da.
- Garrantzitsua da seme-alaben hazkuntzan oreka egokia aurkitzea: zorrotzegia ez izatea, seme-alabak zapalduz, baina bihozberegia ere ez izatea, seme-alabak gaizki haziz.
- Zigorrez baliatzen da, haurrek jokabide jakin bat onartezina dela ulertzea beharrezkotzat jotzen denean. Haserretu egin daiteke, pribilegioak kendu ditzake edo internetik gabeko denbora ezarri.

Egiaztatu denez, hazkuntza-estilo hori da onuragarriena haur gehientzat. Aro digitalaren errealitate aldakorrean, euskarri seguru eta sendoa eskaintzen du. Hala ere, berriz azter dezakezu zigorraz duzun iritzia. Sarbide digitala kentzeak edo sare sozialetatik kanpo denbora eskatzeak kalte handiagoa egin diezaioke zure seme-alabari.



Erantzun gehienak D badira...

Zure hazkuntza-estiloak, ziurrenik, baldintzarik gabeko hazkuntza positiboaren ezaugarri bereizgarriak izango ditu.

Guraso-estiloko test honen emaitzek baldintzarik gabeko hazkuntza positiborantz jotzen badute, sakondu jarraian gehiago jakiteko.

Nortasunaren, balioen eta estrategien ezaugarri hauek dira baldintzarik gabeko hazkuntza positiboa praktikatzen duten gurasoen bereizgarri:

- Haurrenganako baldintzarik gabeko maitasunean eta laguntzan sinesten dute, eta, horrela, beren portaera edozein izanda ere, haurren gaineko erabateko onarpena erakusten dute.
- Perspektiba Handia ikusten saiatzen dira eta, beraz, ez dute uste arau edo ohitura nagusiak berez direnik onak.
- Egoera guztietan beren kontzientzia gorenarekin (intuizioa eta sena) konektatzen saiatzen dira, haurrarentzat zein norberarentzat behar dena hautemateko. Horrek esan nahi du haurrarekin sintonizatzea eta behar asegabe bat aurkitzea edo gatazketan “lasai egotea”, oro har behar dena hautemateko.
- Ez dute ezartzen araurik edukitze hutsagatik edo gizarte-konbentzioetara egokitzeagatik. Arauak hor daude haurrari interesatzen zaion zerbaitetarako balio badute (ez du esan nahi haurrak arauak nahi dituenik, baina baliteke arauak behar izatea, adibidez, seguru sentitzeko, fisikoki osasuntsu egoteko, etab.).
- Saiatzen dira umearekin lan egiten eta boterea ematen, haurraren aurka lan egin eta boterea kendu beharrean.
- Hitzen bidez predikatu beharrean, izatearen bitartez irakasten dute. Haurrak sentitzea, ikastea eta ulertzea nahi duten ezaugarri horiek bete behar dituzte, haurrak ezaugarriok izan ditzan. Ematen dena jasotzen dela sinesten dute.
- Buru irekia eta positiboa mantentzen saiatzen dira. Ez dute sinesten INOLAKO zigorretan. Badakite ez dituztela maitasuna kentzeko teknika tentagarriak erabili behar, hala nola, denbora kendu, haserrea erakutsi edo ez ikusiarena eginda.

Zure hazkuntza-estiloa horretara gehiago hurbiltzen bada, oso garrantzitsua da oreka egokia aurkitzea baldintzarik gabeko maitasunaren (seme-alabei bizitzako hasierarik onena emateko abiapuntua) eta haurrek benetan behar duten egituraren artean. Zure seme-alaba bizitzako errealitate gogorretarako prestatu behar duzu. Bestela harrapari edo jazartzaileen biktima izan daiteke eta, ondoren, jazarle bihurtu.

2. ZATIA - GURASOEN ESKUBIDEAK MUNDU DIGITALEAN - EBALUATU ZURE EZAGUTZAK

Galdera hauei BAI edo EZ batekin erantzun diezaiekezu. Kasu honetan, erantzun zuzen edo okerrak daude. Erantzun zuzena egiaztatzen duzunean, batzuetan azalpenen bat aurkituko duzu.

- 1** Guraso guztiek eskolako plataforma digitalean parte hartzeko aukera izan beharko lukete, eta, beraz, sartzeko tresnak eman beharko litzaizkieke (hala nola gurasoentzako sarbide libreko lanpostuak), hala eskatuz gero.
- 2** Zure seme-alabak lagun bat jazarri du musulmana izateagatik eta buruan zapi bat eramateagatik. Bere adierazpen askatasunaren barruan dago; ez duzu ezer egin behar.
- 3** Seme-alabentzako urrutiko hezkuntza digitala aukeratzea gurasoen oinarrizko eskubidea da.
- 4** Gurasoek beren seme-alaben mezu elektronikoak eta sare sozialetako mezuak irakurtzeko eskubidea dute.
- 5** Zure haurrak 18 urte bete zituen atzo. Hemendik aurrera, zure umeak izango du gurasoen sarbidea eskolako plataforma digitalean.
- 6** Irakasleek gurasoei lagundu behar diete hezitzaile gisa, eta ikastetxeak erabiltzen duen teknologia digitalari buruzko orientabideak eman behar dizkiete.
- 7** Ikastetxeetako zuzendariak erabaki behar dute zer teknologia erabili behar duten ikastetxeko ikasleek.
- 8** Gurasoei dagokie erabakitzea seme-alabentzat aukeratu zuten eskolarekin komunikazio digitala mantendu nahi duten ala ez.
Zure seme-alabak matematikarako talentu berezia du. Harpidetza behar duen online ikaskuntza-tresna bat erabiltzea da haren garapena behar bezala laguntzeko modu bakarra. Haurrari plataforma erabiltzea uka diezaiokezu, ordaindu ezin baduzu.
- 9**
- 10** Lehen hezkuntzako ikasleek ez dute behar besteko heldutasunik eskolako erabakietan parte hartzeko edo eskola-plataformetan sartzeko.

Erantzunak:

1. Guraso guztiek eskolako plataforma digitalean parte hartzeko aukera izan behar dute, eta, horretarako, sartzeko tresnak eman beharko litzaizkieke (hala nola gurasoentzako sarbide libreko lanpostuak), hala eskatuz gero.

a. Egia da. Eskolak ezin badu halakorik eman, guraso guztiek erabil ditzaketen metodoak aukeratu behar ditu.

2. Zure seme-alabak lagun bat jazarri du musulmana izateagatik eta buruan zapi bat eramateagatik. Bere adierazpen askatasunaren barruan dago; ez duzu ezer egin behar.

a. Gezurra. Eskubide ooren muga da ezin dituela besteen eskubideak urratu. Hori kontuan izanda jokatu behar duzu.

3. Seme-alabentzako urrutiko hezkuntza digitala aukeratzea gurasoen oinarrizko eskubidea da.

a. Egia. Gurasoen oinarrizko eskubidea da seme-alabak hezteko zer laguntza mota behar duten erabakitzea. Hala ere, guztiz digitala den urrutiko hezkuntza muturreko kasuetan bakarrik sustatu beharko litzateke, gaixotasun batean, esaterako. Bestela, hezitzaile profesionalek gurasoak konbentzitzen saiatu beharko lukete, edo adingabeak babesteko agintariei salatu.

4. Gurasoek beren seme-alaben mezu elektronikoak eta sare sozialetako mezuak irakurtzeko eskubidea dute.

a. Gezurra. Intimitaterako eskubidea haurren oinarrizko eskubidea da. Era berean, ezin dizkiezu motxilak askatasunez ireki, baimenik gabe.

5. Zure haurrak 18 urte bete zituen atzo. Hemendik aurrera, zure umeak du gurasoen sarbidea eskolako plataforma digitalean.

a. Egia. Gurasoen eskubideak umea heltzean amaitzen baitira. Nahiz eta kasu gehienetan nahikoa konfiantza dagoen zure seme-alabaren bizitzan parte hartzen jarraitzeko, legez horretarako baimena behar duzu.

6. Irakasleek gurasoei lagundu behar diete hezitzaile gisa, eta ikastetxeak erabiltzen duen teknologia digitalari buruzko orientabideak eman behar dizkiete.

a. Egia da gurasoek seme-alabak hezteko behar duten laguntza jaso behar dutela, eta irakasleen betebeharrak profesionala dela laguntza hori ematea. Hala ere, askotan irakasleen lan-ordutegian ez da halakorik aitortzen. Gurasoek eta irakasleek indarrak batu beharko lituzkete horretarako.

7. Ikastetxeetako zuzendariak erabaki behar dute zer teknologia erabili behar duten.

a. Gezurra. Gurasoek eta ikasleek zeresana izan behar dute erabakiak hartzeko orduan. Onuragarria ere bada, gurasoek teknologiari buruzko informazio gehiago izan baitezakete, eta horrek erabaki hobeak hartzera eramán ditzake.

8. Gurasoei dagokie erabakitzea seme-alabentzat aukeratu zuten eskolarekin komunikazio digitala mantendu nahi duten ala ez.

a. Gezurra. Gurasoek seme-alabaren hezkuntzaren ardura dute, eta, beraz, eskolan gertatzen denaren berri izan behar dute, baita horri buruzko iritzia eman ere. Erantzukizun hori -guraso askok bere gain hartzen duten arren- ez da amaitzen ikastetxea aukeratzearekin, baizik eta beharrezkoa da eskolatze-denboran zehar bertan eta egunean egotea.

9. Zure seme-alabak matematikarako talentu berezia du. Harpidetza behar duen online ikaskuntza-tresna bat erabiltzea da haren garapena behar bezala laguntzeko modu bakarra. Haurrari plataforma erabiltzea uka diezaiokezu, ordaindu ezin baduzu.

a. Gezurra. Haurrek eskubidea dute beraientzat hobe den hezkuntza jasotzeko. Hala bada, eskolak, udalerriak edo Estatuak beharrezko finantzaketa eman behar du, zuk ezin badiozu eman. Egia esan, hezkuntza, oro har, doakoa bada, behar bereziak -desgaitasuna, talentu berezia edo beste edozer- doan eman beharko lirateke.

10. Lehen hezkuntzako ikasleek ez dute behar besteko heldutasunik eskolako erabakietan parte hartzeko edo eskola-plataformetan sartzeko.










a. Gezurra. 2 urteko haurrak gai dira beren joko edo haurtzaindagi-taldean erabakiak hartzen parte hartzeko. Hala ere, erabilitako metodoak adinera egokitu behar dira, haur txikienek eta nagusiek tresna desberdinak behar baitituzte. Hizkuntza-erregistroa: haurrek erabaki beharrezkoa ulertzen dutela ziurtatzea funtsezkoa da, baina baita gurasoentzat ere.

2. ERANSKINA: ELKARRIZKETA-GAIAK

Batzuetan zaila dirudi seme-alabekin segurtasun digitalarekin lotutako gaiak jorratzea. Jarraian, lagun diezazuketen elkarrizketa-gai batzuk aurkituko dituzu.

Lehenik eta behin, jakin behar duzu zure seme-alabarentzat garrantzitsua dela ikastetxean egin duenari buruz galdetzea. Ikerketek argi eta garbi adierazten dute gauza bat: “Zerbait interesgarria gertatu al da eskolan?” edo antzeko galdera egitean hitz gutxiko erantzuna lortu arren (“ezer ez”, adibidez), eragin positiboa du zure semearen ongizatean, bere bizitzaz interesatzen zaizula sentitzen baitu.

Tresna digitalei buruzko elkarrizketa bat hasteko ideia batzuk:

-  Irakatsiko didazu nola funtzionatzen duen?
-  Zer da gehien gustatzen zaizuna?
-  Zein zailtasun daukazu erabiltzean?
-  Non ikasi zenuen erabiltzen?
-  Horri buruzko zerbait entzun/irakurri dut. Hauxe irakurri dut. Ados zaude?
-  Blokeatuta nago. Badakizu nola egin? Irakatsiko didazu?
-  Bilatu dezagun biok Googlen.
-  Bai, jakina, norbaitek esan dizu. Egiaztatuko dugu ea beste batzuk ados dauden?
-  Hau lanean gertatu zen... Halakorik gertatu zaizu eskolan?

ERREFERENTZIAK

- Awuzurudike, E. (2014). *Effects Of Byod On School Performance*. London School of Commerce, London, United Kingdom
- Celot, P. (ed.) (2021). *MEDIA COACH How to become a media literacy coach*. EAVI. Brussels, Belgium
- Day, E. (2021) *Digital Age Assurance Tools and Children's Rights Online across the Globe: A Discussion Paper*. UNICEF. Geneva
- Drummond, A., Sauer, J. D., Ferguson, C. J. (2020) Do longitudinal studies support long-term relationships between aggressive game play and youth aggressive behaviour? A meta-analytic examination. *R. Soc. open sci.*7200373200373 <http://doi.org/10.1098/rsos.200373>
- Hämäläinen, r., Nissinen, K., Mannonen, J., Lämsä, J., Leino, K., Taajamo, M. (2021). Understanding teaching professionals' digital competence: What do PIAAC and TALIS reveal about technology-related skills, attitudes, and knowledge? *Computers in Human Behavior*, Volume 117, 106672. The Netherlands
- Janssen, H., Salamon, E. (2021). *Communication, literacies, multilingual and critical thinking skills and competences for teaching and learning in the digital age*. European Education Policy Network on Teachers and School Leaders. Utrecht, the Netherlands
- Livingstone, S., Blum-Ross, A. (2020). *Parenting for a Digital Future*. Oxford University Press. Oxford, UK. DOI:10.1093/oso/9780190874698.001.0001
- Livingstone, S., Mascheroni, G., Stoilova, M. (2021). The outcomes of gaining digital skills for young people's lives and wellbeing: A systematic evidence review. *News, Media & Society*. <https://doi.org/10.1177/14614448211043189>
- Livingstone, S., Pothong, K. (2022). Beyond screen time: Rethinking children's play in a digital world. *Journal of Health Visiting* Volume 10 Issue 1. United Kingdom
- Livingstone, S., Stoilova, M., Nandagiri, R. (2020) Data and privacy literacy: the role of the school in educating children in a datafied society. In: Frau[]Meigs, Divina, Kotilainen, Sirkku, Pathak[] Shelat, Manisha, Hoechsmann, Michael and Poyntz, Stuart R., (eds.) *The Handbook of Media Education Research*. Global Handbooks in Media and Communication Research. Wiley-Blackwell, Hoboken, New Jersey, 413 - 425
- OECD TALIS 2018 and PIAAC 2011-17 Survey results
- Parsons, D., Adhikari, J. (2016). Bring Your Own Device to Secondary School: The Perceptions of Teachers, Students and Parents. *The Electronic Journal of e-Learning* Volume 14 Issue 1. Reading, United Kingdom
- Salamon E. (2020). A New Deal between Parents and Professionals Using COVID-19 Learnings as Leverage. *Social education* 53, Nr. 1, p. 6–25. Vilnius, Lithuania
- Schleicher, A. (2019). *Tackling Disinformation Face to Face: Journalists' Findings From the Classroom*. Lie Detectors, Brussels, Belgium

Shah PE, Hirsh-Pasek K, Kashdan TB, Harrison K, Rosenblum K, Weeks HM, et al. (2021) Daily television exposure, parent conversation during shared television viewing and socioeconomic status: Associations with curiosity at kindergarten. PLoS ONE 16(10): e0258572.

<https://doi.org/10.1371/journal.pone.0258572>

Smahel, D., Machackova, H., Mascheroni, G., Dedkova, L., Staksrud, E., Ólafsson, K., Livingstone, S., and Hasebrink, U. (2020). EU Kids Online 2020: Survey results from 19 countries. EU Kids Online. <https://doi.org/10.21953/lse.47fdeqj01ofo>

Vissenberg, J., d'Haenens, L., Livingstone, S. (2022). Digital Literacy and Online Resilience as Facilitators of Young People's Well-Being? A Systematic Review. *European Psychologist* (2022), 27(2), 76–85

World Bank. 2018. World Development Report 2018: Learning to Realize Education's Promise. Washington, DC: World Bank. doi:10.1596/978-1-4648-1096-1

<http://ceflonline.net/wp-content/uploads/Greece-Parental-Responsibilities.pdf>

http://www.opengov.gr/ministryofjustice/wp-content/uploads/downloads/2018/02/sxedio_nomou_prostasia_pd.pdf

<https://biblio.ugent.be/publication/8621651/file/8621654.pdf>

<https://biblio.ugent.be/publication/8621651/file/8621654.pdf>

<https://biblio.ugent.be/publication/8621651/file/8621654.pdf>

https://codevoorkinderrechten.nl/wp-content/uploads/2021/07/Code-voor-Kinderrechten-Wordversie_EN.pdf

<https://digitalisjoletprogram.hu/files/b9/55/b955b52770e659680b4e537e84df906b.pdf>

<https://english.elpais.com/society/2021-04-16/spain-approves-pioneering-child-protection-law.html>

https://nmhh.hu/cikk/162718/A_Gyermekvedelmi_Internetkerekasztal_feladata_es_tagjai

<https://veiliginternetten.nl/thema/kinderen-online/>

<https://www.abc.es/familia-padres-hijos/20151005/abci-deberes-menores-201509292104.html?ref=https%3A%2F%2Fwww.abc.es%2Ffamilia-padres-hijos%2F20151005%2Fabci-deberes-menores-201509292104.html>

<https://www.betterinternetforkids.eu/documents/167024/6823249/Greece+-+BIK+Policy+Map+Infosheet+-+FINAL.pdf/7cflfde6-81c7-ba15-56a3-3f55511c76f9?t=1622798009229>

<https://www.betterinternetforkids.eu/documents/167024/6823249/Hungary+-+BIK+Policy+Map+Infosheet+-+FINAL.pdf/166d7f56-2b9b-dee1-6a3a-5b857f-7001b5?t=1622798025213>

[26656](https://www.betterinternetforkids.eu/documents/167024/6823249/Hungary+-+BIK+Policy+Map+Infosheet+-+FINAL.pdf/166d7f56-2b9b-dee1-6a3a-5b857f-7001b5?t=1622798025213)

<https://www.betterinternetforkids.eu/documents/167024/6823249/Netherlands+-+BIK+Policy+Map+Infosheet+-+FINAL.pdf/01d31b47-7e89-e86b-d7bf-e6b6110c6eee?t=16227980>

<https://www.betterinternetforkids.eu/hu/sic/netherlands>

<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2021-9347>

<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2014-2222>

https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2015-37

<https://www.educacionyfp.gob.es/prensa/actualidad/2021/03/260321-curriculo.html>

<https://www.jdsupra.com/legalnews/children-s-rights-in-the-digital-world-1472816/>

<https://www.lamoncloa.gob.es/serviciosdeprensa/notasprensa/educacion/Paginas/2021/260321-curriculo.aspx>

<https://www.nji.nl/sites/default/files/2021-06/Reform-of-the-Dutch-system-for-child-and-youth-care.pdf>

<https://www.privo.com/blog/gdpr-age-of-digital-consent>

<https://www.realinfluencers.es/wp-content/uploads/2018/11/iv-estudio-tic-2018-espana.pdf>

<https://www.reedsmith.com/en/perspectives/2019/09/greece-passes-bill-to-adopt-gdpr-into-national-law>

<https://www.sch.gr/english>

<https://www.universiteitleiden.nl/en/news/2021/03/code-for-childrens-rights-designing-technology-with-children-in-mind>